*"Agur irudiari", erakusketa baten azken egunak*


# ARRASATE PRESS

**1993ko urtarrilak 30** **178. zenb.**




Informazio kanpaina
**Zer da MCC?**

Udal Plenoa
**Ikastolekiko hitzarmena, pintadak...**

**Jose Mari Ormaechea**

# Kooperatiben historia bizia

Oraindik ia hilabete falta zaigu haratuzteetarako, baina jadanik aukeratu da aurtengo jaietako kartel iragarlea. Lehiaketan, Juan Jose Uriarte, "Bermi"k eginiko kartela izan da aukeratua. Bertan, Arrasaterekin erlazionatzen den dragoi baten irudia ikus dezakegu eta haratuzteetako jaien egunak egutegi batean azpimarratu eta beltzez jarrita. Otsailean zabaltzen den egutegi honetan 18a zabala eta handia dugu, Ostegun Gizena ospatzen delako, 19a, berriz, oso fina, Ostiral Argalarekin erlazionatuz, 22 eta 23a ere beltza haratuzteetako egun nagusiak direlako eta azkenik 24an "Etxopolbo" hitza jartzen digu, hausterreguna ospatuko delako. Kolorearen aldetik, urdina eta horia nagusitzen dira, berde eta gorrixka konbinatuz.



Juan Jose Uriarte, "Bermi"ren kartel irabazlea.

'CARFRA' SUKALDE ALTZARIAK
5 URTETAKO GARANTIAZ

ELEKTROGAILUTAN MARKA GUZTIAK

ARMAIRU ENPOTRATUAK ISPILU-ATE KORRIGARRIEKIN

BARNE ETA KANPOKO ATEAK



CARFRA

Vanesa

Berango ALTZARIAK

ERAKUSKETA
Legarre pabiloia z/g
Gipuzkoa Etorbidea
Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE

DēLonghi
marka italiarraren banatzaile ofiziala




ARAMAIO
okindegia
Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

ECUADOR
Bidaiak
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Memesa
79 42 22


# Agindua zor

Industriaren inguruan eraikitako kultura izan arren gaur gailentzen dena, Euskal Herrian zer esan handia du artzai kultura eta nekazarienak ere, historian zehar bata bestearen atzetik gailendu direnak.

On Manuel Lekuona, beste ekintza arlo batzuen artean Euskaltzaindiako burua izana, artzai kulturari buruz hainbat ikerketa egina da. Bere esanetan, milaka eta milaka urtez, Euskal Herriko zatirik handiena —Nafarroa eta Arabako ordekaz kanpo— artzai izan da euskalduna eta horrek kutsu handia erantsi dio gure kulturari.

Pirine mendiren bi aldeetan bazkatzen zituzten artzaiek beraien artaldean, portuetan barrena batetik bestera iraganez. Nekazariarentzat mendiak mugak dira, atzaiarentzat berriz ibaiak. Artaldeak ezin igaro zitezkeen ibaiaren alde batetik bestera.

Artzaiak mendian elkartzen ziren berez gauzetarako; gaur oraindik ere mendiak egiten dituzte beren batzarrak; Erronkari eta Baretous-ko artzaiak mendian elkartzen dira baretoustarrek erronkaritarrei zor dieten "hiru behien" zerga urtero ordaintzeko.

Artzai kultura horren lekuko dira:

• Lurren jabetza: herriarena, ez pribatua. "Artaldea, artzaiarena, lurra, herriarena; dena herri lurra".

• Abestiak: "Uso txuria errazu...".

• Dantzak: ibiltari handien saltorako arintasuna eskatzen dutenak.

Pirine mendi hauek neguan hotz dira, artzaientzako hotzegi. Horrek sortu du neguan artaldeek behera jeitsi beharra, horrek buruhauste asko sortzen dizkiolarik artzaiari.

Ahoz-aho kontatzen denez, neguari artzai batek agindu zion eguraldi goxoa egiten bazuen, bildotsa emango ziola ordainetan. Negua aurrera zihoan eta denbora onaz baliatzen zer artzaina. Urtarrila pasa eta otsaila aurrera zihoan eta agindutako bildotsa eskatu zion neguak. Artzaiak berriz, otsailaren azkena inguratzen zenez, ukatu egin zion bildotsa, negua gainditutako zegoela eta.

Haserre bizian jarri zen negua eta esan omen zion: "Otsaileko bat eta martxoko birekin, laster bukatu diat hi eta hire artaldearekin". Eta bat-batean sortu zen izugarrizko ekaitza, tximist, trumoi eta egundoko erauntsia. Mendian harrapatu zuen artzaia eta artaldea eta eginahalak egin arren, ardiak moteldu eta amildu egin zitzaizkion batzu, desagertu besteak, tximistak jo besteak,... Aharikoa behinik behin salbatu nahiean, hartu zuen bizkarrean eta bere harekin zihoala, begia atera zion adarrarekin. Hura izan zen artzaiaren hondamendia.

Ordu ezkeroztik "zozomikoteak" deitzen zaio neguak aldegiterako egin duen "akzio"txoari, eta esaten denez, artzai hark emandako hitza ez betetzean du sorrera.

**Rufina Olasagasti**



Leire


Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du



• ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Arantzazu Loidi. **Kazetariak**: Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea**: Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa**: Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa**: Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua**: Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak**: Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna**: Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada**: 6.300. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia**: Joseba

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

IBARRA
Garajea S.A.

EBRO
NISSAN
Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua


ITURRIOTZ
taberna
Girorik jatorrena!
Tfnoa: 79 16 04

IRATI
TABERNA
Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

## Espekulatzaileei ez

Oso ondo esaten zuen aurreko artikulu batetan Jesus Larrañagak, Arrasaten sufritzen ari garen egoera industrialari benetako soluzioa eman behar zaiola.

Badirudi gauza arraroak eskatzen ari direla, baina ez, gure etorkizuna da zaindu behar dena eta ez dago hain garbi hori oraingo zenbait "politika enpresarialarekin" aseguratuta dagoela.

Kasu garbiena Zerrajerakoa da. Arrasateko fabrika inportanteena pikutara doa. Eta bitartean ixilik jarraitzen dugu horren desagerketaren aurrean. Eta horrela ezin da jokatu, bestela arrazoia emango diegulako Arrasateko patrimonioa ohostu nahi dutenei.

Zerrajerako terrenoak dira oraingo ejekutiboen asmoa: 70.000 m2. etxeak egiteko. Negozio ederrak! Baina zeinentzat? herriarentzat? Ez, espekulatzaile arrotzentzat.

Jesus Larrañagaren artikuluan terreno horiek beste industriak sortzeko erabili beharko liratekela esaten zen. Horrela uste dut nik ere, lanpostu berriak sortuz Arrasateko aberastasuna gordeko litzateke. Terrenuak salduta, etxeak egiteko, non aurkituko dugu lana?

Larrañagaren alderdi politikoa (EA) desmantelamenduaren aurka egongo dela pentsatzen dut, abertzaleek gure herriaren etorkizuna zaindu behar dutelako. Eta uste dut horrela pentsatuko dutela HB, PNV eta EuE partiduek ere. Hau da, Udaletxeak ez du eman behar terrenuak reklasifikatzeko baimenik.

Industrialde berri bat egin daiteke. Lanpostuak sortu eta gure gazteei aukera eman, hemen bertan lan egiteko. Horretarako daude Saiolan, Eskola… eta beste zentruak. Baina espekulatzaileei Arrasateko herriak EZ haundia esan behar die.

**Iñigo B.**

## Animalien trafikoa?… Ez, eskerrik asko!

Azken mendeotan, giza espezieak milaka animalia moeta akatu ditu, Txikizio bakoitza ekosistemaren oreka konplexuan galduriko katemaila bat besterik ez delarik.

Hona hemen betirako galduriko espezie bakar batzu. *Mojoa*: Ezagutu den hegaztirik ederrena, bere lumen edertasuna bere galera erakar zuen 1934 urte inguruan. *Itsas-behia, Dodoa*: 25 kilotako hegazti erraldoia. *Alka*: pinguinoaren antzerakoa… Balio izugarrizkoak izanik, gizakiaren eraginez desagertuak izan direlarik.

Legez kanpoko animalien sal-erosketari dagokionez, Espainiarra da lehen mailan dagoen estatua. Kontutan hartzekoa da, bestalde, babestutako animalien sal-erosketa azkar eta erraz aberasteko modu bat dela; garrantziz, hirugarren postuan kokatzen delarik, droga eta arma trafikoen atzetik.

Egun, moeta guztietako animaliak daude salgai: dordokak, narraztiak, loroak, tximuak, hegaztiak… Oso egoera mingarrietan garraiatzen dituztelarik jatorrizko lekutik helburura heldu artean, hainbat hilabete iraungo duen garraioan, edonola pilaturik egingo dutena, bestalde, pilaketaren ondorioz %60a bidaian hilko delarik. Loroen kasuan neurri hau igo egiten da, %90era helduz.

Hor daude, bestalde, zentzubako hainbat moda lelo: animalia exotikoa edukitzea laguntzat, larruzko jantziena, kaiman, suge edo muskerren larruz egindako boltsena… edo igel hankak, itsas-dortokazko zopa… jatearen snobismoa.

Zenbateko ez jakintza adierazten duen bere burua "sapiens-tzat" (=jakitun) jotzen duen izaki honek! Utz ditzagun animaliak beren bizilagunetan hazten eta bizitzen… haietaz ikasi guran, basora edo itsasora jotzea besterik ez genuke. Onartezina da animalia basatiak kaioletan gorderik/ erakustea!… Ezta kulturaren izenean ere!!!

Beraz, Arrasateko Udalari honako eskatuko nioke: animaliekiko errespetuaz kontzientzia har dezan, guztion artean holako praktika oreka-apurleak baztertu ditzagun. Bide batez, egun hauetan herrian ikusgai izan den animalien erakusketa salatzen dudalarik.

**Klara Elkorobarrutia**

FANCY
Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

Basabe jatetxea
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

# Nola ikusten duzu Zerrajeraren egoera eta etorkizuna?



**Jose Mari Mercader**
**Zerrajerako langilea**
**(36 urte)**

Gaur egun oso egoera larrian dago. Eskaera gutxi dago eta itxi egin behar dutela entzuten da gainera. Eta konponbidea euren eskuetan dago. Guk ezin dezakegu ezer egin.



**Espe Olibenza**
**Zerrajerako langilea**
**(38 urte)**

Egia esanda, nik oso txarto ikusten dut baina ezin da asko konkretatu, batzuetan lan gehiago dugu, beste batzutan gutxiago. Konponbiderik ez dakit izango duen baina baikorrak izan beharko dugu.



**Jose Ramon Belastegi**
**Zerrajerako langilea**
**(45 urte)**

Egoera, direkzioaren ustez txarra da, guretzat txarragoa. Nire ustez, eurentzat ez dago txarto, saltzeko asmoa eukiko dute eta diru mordoa hartzeko. Ez dago borondate industrialik, espekulazio hutsa dago.



**Jesus Auzmendi**
**Zerrajerako langilea**
**(38 urte)**

Ikusten denez, ez du inolako irtenbiderik. Goitik ere ez dute ezer egiten. Gauzak luzatzen doaz, ezer pasatuko ez balitz bezala.



**Antonio Rafael Garcia**
**Zerrajerako langilea**
**(44 urte)**

Momentuz ondo doa. Zor guztiak ordaindu dizkigute eta momentuz, aurrera goaz piskanaka.



**Jose Alzola**
**Zerrajerako langilea**
**(35 urte)**

Situazioa oso txarto dago eta ez dut uste konponbiderik egongo denik. Hau "a pike" doa eta horrela geratuko da.



**Elena Etxabe**
**Zerrajerako langilea**
**(28 urte)**

Ba nik, egia esanda, ez dakit ezer. Baina egoera txarto ikusten dut eta konponbidea ere bai. Ez digute ezer esaten eta azkenengo momenturarte ez dugu ezer jakingo.



**Joakin Nuñez**
**Zerrajerako langilea**
**(53 urte)**

Lanpostu asko galdu da denbora gutxian. Arrazoia ez dakit, teknologia falta den edo zer. Teknologia aldetik prestatu egin beharko litzateke eta horretarako inbertitu egin behar da.

ESKAINTZA
Betaurrekoak
2.500 PTAtik aurrera!

GARAGORRI
OPTIKOAK
Iturriotz, 29
Tfnoa: 79 16 98
ARRASATE
Bidekurutzeta, 13
Tfnoa: 76 13 73
BERGARA

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. ..... 79 53 00
Igualatorioa ..... 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ..... 79 39 00
(emakumeak) ..... 79 44 11
Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**
Bergara ..... 76 55 76

**DYA**
Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57
(Txanda hartzeko) ..... 77 03 46
77 07 21
Oñati ..... 78 08 52
Eskoriatza ..... 79 98 58
Aretxabaleta ..... 79 74 58
Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak ..... 45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati ..... 78 04 11
Bergara ..... 76 14 69
Arrasate ..... 79 14 39
Aretxabaleta ..... 79 10 52
Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**
Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea ..... 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua ..... 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..... 78 28 00

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81
Gasa ..... 900 40 05 23
79 78 44
79 76 78

**Garraioak**
Taxiak ..... 79 12 22
P.E.S.A. ..... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza ..... 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartea ..... 79 87 77
KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterrongo liburutegia**
Monterron ..... 77 01 05

## GOARDIAKO FARMAZIAK

**Ostirala 29**
Egunez: Amezua. Santamaina.
Gauez: Amezua. Santamaina.

**Larunbata 30**
Egunez: Azkoaga. Ferrerias.
Gauez: Azkoaga. Ferrerias.

**Igandea 31**
Egunez: Español. Iturriotz.
Gauez: Español. Iturriotz.

**Astelehena 1**
Egunez: Corcuera. Musakola.
Gauez: Guallar. San Antonio.

**Asteartea 2**
Egunez: Irizar. Erguin.
Gauez: Estella. Matxiategi.

**Asteazkena 3**
Egunez: Amezua. Santamaina.
Gauez: Mozos. Pedro Deunaren.

**Osteguna 4**
Egunez: Ruiz. Maala.
Gauez: Camacho. Oxirondo.

## 29 OSTIRALA

**ZINEA**
"El guardaespaldas" (7,10)

**MIETZERREKAKO JAIAK**
Herri afaria jubilatuen omenez. Arantzazu Loidi, Jon Iñaki Izarzelaia eta Aitor Sarasua bertsolariek alaituta. Gaueko 9etan. Mietzerrekan.

**ANTZERKIA**
Flash-Bang Kontus Teatro taldearekin antzerki saioa. Zuzendaria: John Mc. Tiernan. Elorrioko Arriola kultur aretoan. Gaueko 10etan.

**GAZTEEN BILERA**
Santa Ageda bezperako egunean kantatzeko interesatuentzako bilera AEDko gazte taldeak deituta. Arratsaldeko 7etan. AEDko lokaletan.

## 30 LARUNBATA

**ZINEA**
"El guardaespaldas" (5,7.30,10)

**EUSKAL HIZKUNTZALARITZAREN INGURURKO IHARDUNALDIAK**
"Hitzordenaren analisian gramatika funtzionalaren ikuspegia"ri buruzko hitzaldia. Emalea: Eusebio Osa, E.H.U.ko irakaslea. Bergarako UNEDen.

**MIETZERREKAKO JAIAK**
XII. Mus txapelketa. Arratsaldeko 5etan. Mietzerrekan.

**ROCK KONTZERTUA**
"Vomito" eta "Piperrak" tadearekin rock kontzertua. Gaueko 9etan. Arrasateko Gaztetxean. Sarrera: 400 PTA.

**MASAIA IKASTAROA**
Masaia haserako ikastaroa. Bukaera apirilaren 3an. Arratsaldeko 5etatik 8etara. Arrasateko yoga elkartean.

## 31 IGANDEA

**ZINEA**
"El guardaespaldas" (5,7.30,10)

**MIETZERREKAKO JAIAK**
Eguerdiko 12etan meza. Ondoren, jaien amaiera.

**BATZAR NAGUSIA**
San Felipe Apostoleko Batzar Nagusia. Eguerdiko 12.15etan. Arrasateko San Viator ikastolan.

**EMAKUME MUSULAMANEN BORTXAKETEN SALAKETA**
Emakume musulmanen bortxaketen salaketa. Kanpo Ministeritzara postalak bidaltzeko mahaia. Arratsaldeko 7etan. Arrasateko Portaloian. Emakume Asanbladak antolatuta.

**BAKEAREN ALDEKO MANIFESTALDIA**
Igandean Ghandiren heriotzaren urteurrena ospatzen dela eta, Bilbon pakearen aldeko manifestaldia burutuko da. Joateko interesa duzuenok, Viajes Ecuadorren eman izena. 800 PTA ordaindu eta arratsaldeko 3etan izango da irteera Garibaitik.



### MIETZERREKAKO JAIAK

Gaur hasiko dira San Balerioak Mietzerrekan. 8etan emango zaie jaiei hasiera, gaueko 9etan, jubilatuen omenez afaria izango da, Arantzazu Loidi, Jon Iñaki Izarzelaia eta Aitor Sarasua bertsolariekin. Larunbatean, arratsaldeko 5etan XII. Mus txapelketa eta 11etan Anaiak taldearekin erromeria izango da, goizaldera txarri harrapaketa eta txokolatada. Igandean 10etan txirrindulari froga burutuko da eta 12etan meza.

### SAN FELIPE APOSTOLEKO BATZAR NAGUSIA

**Datorren igandean, urtarrilaren 31ean San Felipe Apostol elkarlaguntzako elkarteak urteko batzar orokorra burutuko du. Eguerdiko 12.15etan hasiko da San Viator ikastolan. Tratatuko diren gaien artean, zuzendaritza batzordearen berritzea, aurtengo administrazio gastuen aurrekontua eta diru kontuen balantzea aztertuko dira.**

## 1 ASTELEHENA

**ZINEA**
"El guardaespaldas" (7,9.30)

**ESKULANEN IKASTAROA**
Eskulanen ikastaroaren hasiera. Emalea: Maria Pilar Uzkiano. Arratsaldeko 6.30etan. Arrasateko Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan.

**INGURUAREKIKO INPAKTU IKASKETAK**
"Inguruarekiko inpaktu ikasketak eta informazio geografikoaren sistemak" ikastarorako matrikula egiteko azken eguna. Prezioa: 25.000 PTA. Bergarako UNEDeko geografia eta historia departamentuan.

**"EL GUARDAESPALDAS" FILMA**

**Kevin Costner, "Bailando con lobos" eta "J.F.K." pelikuletan aktore karrerako interpretazio onenetan ikusi ondoren, pelikula honetan amodiozko abentura baten protagonista paperean ikusteko aukera duzue. Eta bikotea osatzeko, mundu mailako abeslari famatu bat dugu: Withney Houston. Amodiozko filmeak gustatzen bazaizue, aukera paregabea "El guardaespaldas" filmean. Era berean, Withney-ren ahotsean "I'll we always love you" kanta entzuteko primerako aukera.**

## 2 ASTEARTEA

**ZINEA**
"El guardaespaldas" (7,9.30)

**PSIKOLOGIKO-AFEKTIBO-SOZIAL IKASTAROA**
Psikologiko-afektibo-sozial ikastaroaren hasiera. AEDko Ekin emakume taldeak antolatuta. Bi txanda: arratsaldeko 3.30etan edo 6etan. Emalea: Amaia Vazquez. AEDn.

**BESAIDEKO ESKI KANPAINA**

Besaide Mendizale Elkarteak eski kanpaina berezia antolatu du aurtengo negurako. Asteburu guztietan Formigalera autobus bat irteten da larunbata eta igandea pasatzeko. 9.000 PTAk prezioa du eta bertan, autobusa, erremonteak eta pentsio erdia sartzen da. Interesatuok Besaide elkartera joan zaitezkete astelehen, astearte eta azteazkenetan, arratsaldeko 6.30etatik 7.30etara. Bestalde, Aste Santuetarako apirilaren 9tik 16ra Alpeera beste irteera bat antolatu du. 47.000 PTAtan apartamentua, erremontea eta bidaia ordaintzen da. Interesatuok Besaiden eman dezakezue izena.



## 3 ASTEAZKENA



**HIZKUNTZA MUSIKALAREN IKASTAROA**

**Arrasate Musikalek Hizkuntza Musikalari buruzko programa berezi bat antolatu du. Helduentzat izango da eta bost hilabetetako iraupena izango du. Hilabete hauek pasa ondoren, instrumentuarekin hasteko aukera izango dute interesatuek. Ikastaro honetan oinarrizko hizkuntza musikala erakutsiko da eta 0 maila eta 1 maila bereiztuko dira. Izenak emateko epea datorren otsailaren 5ean bukatuko da eta Zentruan bertan eman dezakezue izena.**

## 4 OSTEGUNA

**GITARRA IKASTAROA**
Gitarra ikastaroaren hasiera. Arratsaldeko 6etan. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan.

**GOIKOBALUKO ENTSAIUA**
Goikobalu abesbatzaren entsaiua. Arratsaldeko 7etan. San Frantzisko Xabier Ikastolan.

**BOSNIAKO EMAKUMEEN BORTXAKETEN SALAKETA**

Arrasateko Emakumeen Asanbladak, emakume musulmanak jasaten ari diren bortxaketak salatzeko asmoz, Kanpo Ministeritzari postal batzuk bidaltzeko asmoa agertu du. Horietan zerbait jartzeko interesa baduzu, datorren igandean arratsaldeko 7etan Portaloian jarriko dute mahaia.

**SANTA AGEDA EGUNA**

Datorren otsailaren 5ean ospatzen da Santa Ageda eguna. Hala ere ohiturari jarraituz, bezperan, hau da, ostegunean, Santageda mutilek kaleak alaituko dituzte euren kantekin, jasotako janari eta diruarekin afari ederra prestatzeko eta beharrean daudenei laguntzeko. Ikastetxeetan ere egun berezia izaten da umeentzat eta taldeka Arrasateko atarietan Santa Ageda kantua abesteko ohitura izaten dute. AEDko Gazte Sailak aurten kantatzen irtetea pentsatu du, horregatik dei bat interesatuei, gaur bertan arratsaldeko 7etan izango den bilerara joateko.

"Jende askok etorri nahi du kooperatibismoaren 'Meca' ikustera, izan ere, denak ondo funtzionatzen duen paradisua dela uste dute askok, eta filosofikoki eta ideologikoki planteiatzen dituzten bisitak. Neurrira egindako soluzioen bila ere etortzen dira batzuk, bizi diren lekuan Arrasatekoen antzeko kooperatibak sortzeko."

**David Thorne**k

T.U. lankide

"...Ez dago zailtasunezko ibilbiderik egiteko grinarik eta horrez gain, ahotik galtzen den jende asko ere bada hortik zehar, mendiko botak behin edo bitan jantzi eta izugarrizko pelikulak kontatzen joaten dena. Ez diot mendian zehar jende jatorrik ez dabilenik, baina gehiengoak honelako jarrera hartzen duela uste dut. (...) mendira joan eta etorri dabiltzan gazteei, zerbait deskubritzeko ilusioz joan daitezela aholkatuko nieke. Eta egunetik egunera gauzak hobetzeko, gomendio bat: mendira joatea ez da betiko lekuetara betiko gauzak egitera joatea, deskubritzen jakin behar dugu, gauza berriak aurkitzen".

**Felix Iñurrategi**k 1993-1-22

Gaztegin

"Gaurreguneko Europar desoreka barruan ez gaude batere eroso, euskal puzzlearen aukeran sinisten dugunok. Demokrazia baldin bada gizakiaren emanzipaziorako biderik zuzenena eta europar proiektu berriaren izenean gure egunotan ematen ari diren astakeriak kontutan baditugu, badirudi puzzlearen irtenbidea apustu bortitzean aurki litekeela. Baina hori, silogismo txarra izateaz aparte, astakeria handiagoa litzateke".

**Josemari Velez de Mendizabal**ek 1993-1-26

Egunkaria

# Zergatik datorren asteko irakasleen greba?



**Miren Iriday**

Irakasle interino eta ordezkoa

Behinbehineko 5.000 langile inguruko kolektiboa gara, irakaskuntzako langilego ez unibertsitarioaren %30a izanik.

Gure lanpostura baremazio baten bidez sartu ginen eta, sistemaren beharrak betetzeko baldintza txarretan lan egiten dugu: lan kontraturik gabe, soldata murritzagoaz eta gehienez urtebeteko bakanteak betez. Funtzionarioen lan berbera egiten dugun arren, ez ditugu haiek dituzten eskubideak.

Euskal Eskola Publikoa sortu nahiean gaudenean, gure kolektiboak betetzen duen lana ez da kontutan hartzen eta gainera sarbide sistema arbitrario bat inposatzen zaigu: plazak "Partida Presupuestaria"ren arabera mugatzen dira. Guzti hau kalitatezko irakaskuntza publiko baten aurka doala pentsatzen dugu, kalitate hau egungo beharrak beteaz lortuko delarik: ikasle kopurua murrizturik eta irakaslegoaren egonkortasun handiagoa lortuz, zeinekin, ikaslegoaren jarraipen pertsonalagoa eta etengabea lortuko bailirateke.

Honetarako, ondorengoa esigitzen dugu:

1- Euskal Eskola Publikoko langileentzako lan egonkortasuna.

2- Meritu, esperientzia eta irakaslegoaren hizkuntz perfilak errespetatuko dituen sarbide sistema, berziklaketa egoki bat posibilizatuz.

Gure eskakizunak erantzun gabe jarraitzen dutenez, datorren asterako zenbait mobilizazio hasteko prest gaude: 3 eguneko greba, egunero ekintzak burutuz, giza kateak, entzerronak, karteladak, informazio kanpaina, manifestazioa etabar.

Arazoa konpon daiteke, baina borondate politikorik baldin badago.

LASAGABASTER

LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

### Garrasi Ixilaren kontzentrazioa plazan

Ostiralean Martuteneko funtzionario bat tirokatuta hil zutela eta, Arrasateko Garrasi Ixila taldeak deituta kontzentrazio ixila burutu zen larunbatean Herriko Plazan. Kontzentrazioan jende askok hartu zuen parte.

### Arrasate Musikal-eko bilera

Joan den asteko ostiralean Arrasate Musikalen, helduentzako programa bereziren antolatzeko, bilera bat burutu zen. Bileran Hizkuntza Musikalari buruzko programa berezia antolatzea erabaki zen, helduentzat, jakina.

Programak bost hilabetetako iraupena izango du eta bertan oinarrizko hizkuntza musikala erakutsiko da. Oinarrizko kontzeptuak ikasi eta gero, helburua irailean norberak aukeratutako instrumentua jotzen ikasteko ikastaroarekin hastea litzateke.

### Lapurreta narraztien erakusketan

Ia aste osoa Monterron aurreko zelaian egon den narrazti erakusketako jabeek, ezusteko desatsegina jaso zuten igandean jaiki eta toldoa ebakita eta semearen mendiko bizikleta falta zitzaiela konturatu zirenean. "Zorionez -zioen narrazti erakusketako jabeak- animalien aurka ez dute ezer egin eta hori poztekoa da. Mendiko bizikletaren lapurketarena faena bat da, diru dexente balio duelako. Hala ere, Arrasatetik ez dugu oroitzapen txarrik eramango, erakusketak jende asko erakarri baitu ".



Laso Arregi

## Irazolak ezin Belokirekin

Juan Luis Irazolak, Arrasaten lan egiten duten taxista atxondotarrak ezin izan zion irabazi Belokiri Eskuz-eskuzko bigarren mailako pilota txapelketaren finala. Irazolak ez zuen gaizki jokatu, hamar tanto egin zituen, baina argi geratu zen Belokiri irabazteko asko jokatu behar dela. Finalaren aurreko egunetan, sarrerak eta telebista irudiak zirela, enpresek makina bat iskanbila sortu zituzte; finaleko egunean ere, Irazolaren kamisetako publizitatearen kontura, ikuskizun penagarria eskaini zuten. Azkenean, Irazola kaltetua, urduri samar jarri baitzen.

### Besaideko ibilaldian 90 pertsona

Besaide Mendizale Elkarteakk aurten antolatutako lehen ibilaldia guztiz arrakastatsua izan zen, bi autobus betetzea lortu baitzen.

Goiz partean, Nafarroako Goizueta eta Arantza herrien arteko trabesia samurra, nahiz eta Musakolako 10 lagun galdu; eguerdian, berriz, bazkaria Petritegi sagardotegian. Sagardotegietan ohitura denez, jateko makailu tortila, txuleta, gazta, menbriloa eta intxaurrak eta edateko nahi beste sagardo. Bazkalosteko giro berezi eta jatorrean, azken 25 urteetan urteko lehen egunean Udalaitzera hutsik ez egitearen, opari txiki bat eman zioten Juan Jose Saenz "Limin"i.

### Argazki-artxiboaren aurkezpena

Arrasateko 409 argazki jasotzen dituzten 16 libururen aurkezpena egin zen joan den larunbatean Udaletxeko aretoan. San Andres, Zigarrola, Erguin, Erdialdea eta baserri auzoak ikus daitezke argazkiatxibategi berri honetan. Artxibategiaren helburua, urteetan zehar izan diren paisaia-aldaketak, eraikuntza berriak, obrak, errepideak eta beste hainbat aldaketa gorde nahi izan dira. Egindako lanaren balio historikoa handia bada ere, aurrerantzean artxiboari jarraipena egitea kontuan hartuko da.

Proiektuan Arrasate Zientzia Elkarteak eta ASA taldeko hamaika argazkilarik hartu dut parte.

**JAIOTZAK**

- Mikel Gonzalez Sanchez. Urtarrilaren 11n.
- Rafael Ferreira Do Santos, 13an.
- Cristina Fernandez Carmona, 16an.
- Danel Etxagibel Altuna, 17an.
- Xabier Lazkano Rayo, 18an.
- Adei Martin Martin, 19an.

**EZKONTZAK**

- Carlos Lazkano Arrate & Miren Begoña Uribetxebarria Bedia. Urtarrilaren 23an. Elizaz.

**HILDAKOAK**

- Prudencio Torres Villoria. Urtarrilaren 22an. 87 urte.
- Martin Agirrezabal Larrañaga, 24ean. 68 urte.
- Francisca Iñarra Orkaizagirre, 25ean. 83 urte.
- Teresa Fernandez Landa, 25ean. 68 urte.

HERIZ
ERAIKUNTZAK
Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

comercial san juan
Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



LUIS LIMON *

# Gurasoen arteko topaketen helburuak

**Heziketako** gaietan aitaamok ditugun ezagupenak zabaldu egin nahi genituzke: sexualitatea, drogomenpekotasuna, aisialdia, familia, eskola… askotan nola erantzun ez baitugu jakiten gai horien aurrean, edo bestela dramatismoz erantzuten dugu eta.

Honako hauek zein garrantzitsuak izan daitezkeen ikastea da helburua:

- Gure seme-alaben kualitateak baloratzen jakitea, arazoak sortzen direnean bakarrik erreakzionatzeari utzita.
- Seme-alabekin hitzegitea, izan ere, nire ustez gutxi hitzegiten da, eta eurei entzuteko ohiturarik gabe gainera.
- Euren gainean ez egotea, ez seme-alaba eta gurasoen artean hitzegiten, elkarrizketak izaten jakitea, txiki txikitatik eta eguneroko gauza normaltzat.

Topagune bat eskaini nahi genieke gurasoei, bertan esperientziak kontrastatu ahal izan ditzaten, zalantzak aditzera eman etab. askotan orientaziorik gabe eta erdi galduta sentitzen gara eta.

*"Topagune bat eskaini nahi genioke gurasoei, bertan esperientziak kontrastatu ahal izan ditzaten"*

Sakonean, gurasoei euren seme-alabak hezitzearen erantzunkizuna eurengan hartzea planteatzea da helburua, denbora libre edo aisialdia, sexualitatea, drogomenpekotasunak, eta beste gai askotan, beti ardura eskolaren gain utzi barik, gauza guztietaz irakaslea arduradun egin barik, batera lan egitea lortuz.

(*) SAN ANDRES ESKOLAKO GURASOEN ELKARTEAKOA ETA GURASOEN HEZIKETA-MAHAIKO PARTAIDEA

(Erredakzioan itzulia)

## USTEAK USTE

### HIESa GURE ARTEAN

**Duela egun batzuk, "Hies-Ekimen"ak urte honetako asmoak azaldu zizkigun prentsaurreko baten bidez. Bai zerrenda luzea izan ere! Aldi berean, iazko balantzea eman ziguten: beste zerrenda luze bat!**

**Ez dira, ez, pasa den urtean geldik egon, ez eta aurrerantzean geldi egoteko asmorik ere! Dena dela, nire ustez aipatzen ez dena, ekintza zerrenda guzti horren ondorioa da, edo hobeto esanda, ekintza guztiek bere baitan eraman izan dutena, hau da Hies-Ekimena kaleratzea, eta kaleratzea ez modu abstraktu batean, bere kideak kaleratuz baizik; honek, jendearekin kontaktua ekarri duelarik, eta ondorioz jendeak Hiesaren aurrean izan zezakeen jarrera aldatuz, eta hau da, nire ustez eman den pausurik garrantzitsuena.**

**Hasiera batean bazirudien Hiesa zuen jendea ez dakit ze bizimodu iluneko jendea zela! Honen aurrean Hies-Ekimenekoek euren aurpegia erakutsi digute, eta hasiera batean eman zen kanpaina baztertzaileari buelta eman diote, baztertuta geratu beharrean besteokin harremanak sortuz, geu ere eurekin harremanetan sar araziz. Hau da, nire ustez, Hies-Ekimenak burutu dituen ekintza guztien ondoriorik ederrena.**

**Denok daukagu oraindik asko ikasteko, pausu asko emateko, baina hala eta guztiz ere, eskerrik asko irakatsi diguzuenarengatik.**

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA

AE S.A.

- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76



Martxoaren 10 eta 11n kooperatibei buruzko ihardunaldiak egingo dira.

# MCCk bazkideak informatzeko ahaleginak bideratu

MCC korporazioa, bere izaerari eta ihardueari buruzko informazioa emateko helburuaz, komunikazio bideetatik ahalegin berezia egiten ari da. MCCko informazio asmoa, taldeak dituen baliabideak erabiliz gauzatuko da alde batetik; bestetik, berriz, informazio zuzena emango da.

Baliabideei dagokienez, taldeko 20.000 bazkideei, Europara begira kooperatibek hartu duten egitura sektorialaren berri emanez eskutitz bat bidaliko zaie. Era berean, hile honetako eta ondorengo hiru hileetako TU Lankide aldizkarian, korporazioari buruzko lau gehigarri sartuko dira; apirilean, argitaratutako lau gehigarriak bildu eta 20.000 bazkideei banatuko zaizkie, TU Lankiden banaketaz bakarrik 7.100 laguni iritsiko baitzaie. Hori gutxi balitz, apirilean ere, gehigarrien laburpena erakutsiz triptiko bat kaleratzeko asmoa dago.

Informaziorako aldizkaria erabiltzeaz gain, MCCk eztabaida eta sakonketa prozesua irekitzeko asmoa dauka, eta prozesu hori kontseilu errektoreetan, zuzendaritza kontseiluetan eta kontseilu sozialetan zabaltzeko, bazkide guztientzat hitzaldi-informatiboak antolatuko direla ahaztu barik.

### MCCko IV kongresua uztailean

MCCko IV. kongresua uztailean izango da, baina aurrez, erreflexio giroan eta martxoaren 10 eta 11an, Kooperatibei Buruzko ihardunaldiak burutuko dira. Ihardunaldi hauen helburua, uztailean burutuko den IV. kongresua prestatzea da. IV. kongresuan, aurreko kongresuan hartutako erabakien egoera aztertuko da, 93tik-96ra MCCk eramango duen politika enpresariala eztabaidatu, batzorde iraunkorraren aukeraketaz hitz egin eta MCC korporazioan dauden kooperatiben arteko arau-hauste eta zigorren erregulapena egin nahi izango da.

Kongresuan, dexente eztabaidatuko da MCC eta egitura sektorial berriaz, krisiari erantzuna eman eta Europako konpetentziari aurre egiteko sortu zen egitura berriaz.

## EPPko eraikinari oraindik aurrerapiderik ez

Eskola Politeknikoan datorren urterako, goi-mailako injeniaritza mailako ikasketen hasiera dela eta, Iturripe ondoan eraikin berria egin nahi dute, eraikin funtzioainitza izenez ezagutarazi dutena; baina Udalak ez du oraindik baimenik eman.

Udaletxean diotenaren arabera, arauak ez betetzearren ukatu zaio eraikuntza baimena Eskolari. Eskolako arduradunek Udaletxean utzitako proiektuan, zenbait akats nabarmendu dituzte Udal teknikariek, proiektuaren barrukaldea eta kanpokaldeari dagozkien akatsak hain zuzen ere. Beharbada konpondu beharreko akats nagusia, eraikuntzaren kanpokaldekoa da, eskolako proiektuan eraikuntza berriak 1.172 metro karratutako azalera estaltzen baititu eta Udalaren arauek, printzipioz, 1.000 metro karratuko eraikina egitea onartzen dute. Eskolaren proiektua gehiegi luzatzen zen Iturripe aldera, eta zentzu horretan AUKEAk ere garbi adierazi zuen bere kexua. Barrukaldeari dagokionez, konpondu beharreko akatsak samurragoak dira, segurtasun neurriekin zerikusia dutenak dira eta.

Akatsak zuzendu arte Udalak ez dio eraikitzeko baimenik emango Eskola Politeknikari.



Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

PAZI-OLA S.A.
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA
Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Eudelen araudia onartzea eskatu du PSOEk, hormetan propaganda egitea galerazten duen araudia.

# Gai interesgarriak gaur arratsaldeko Udal Plenoan

Zinegotzi sozialistek aurkeztutako mozioa da Eudel-ek kaleetako propagandari buruz duen arautegia ezartzeko eskatuz, gaur arratsaldeko Udal Plenoko gairik interesgarrienetarikoa. Eudel-en arautegiaren arabera, Alkatearen baimen barik ezin da pintadarik egin, kartelik pegatu edo pankartarik jarri. Mozioak araudia ezartzea eskatzeaz gain, hormak zikintzen dituzten taldeei jasotakon dirulaguntza kentzea eskatzen du.

Mozioa alde batera, lehen atzeratutako bi hitzarmenen onartzea espero da, Udala eta San Viator eta S. F. X. Ikastolek sinatuko dutena. Akordiorik ez zegoenez, aurrekoan gaia ez zen plenora eraman; gaurkora ekarri bada pentsatzekoa da akordioa badagoela.

Azkenik, Deba Garaiko Udal Elkarteak egindako proposamenak ere izango du bere garrantzia gaurko plenoan, Garapen Ekonomikorako Eskualde-Agentzia Zerbitzua eratzeko proposamena. Orain arteko Lanbide Hastapena, Lantegi Eskola eta Lanerako Prestakuntza Okupazionala programei formazio-arloa eta enplegu-arloa gehitzea litzateke, irakatsi eta lan munduarekin harremanetan jarri, autoenplegua bultzatzeko.

## Baserrietara ura eramateko proiektua

Bederatzi baserritara ura eramateko proiektua onartu du Udalak, 27.274.174 PTAko aurrekontuaz. Baserriak honako hauek dira: Udala auzoko Arteta, San Andreseko Muxibar, Meatzerrekako Etxaldebarri, Uribarriko Larratxo, Santana eta Eguzkitza, eta Bedoña auzoko Etxamendi, Mendibitxo eta Zabale. Proiektua Udalak onartu eta gauzatuko badu ere, zatirik handiena Diputazioak ordainduko du.

## Animalien kontrolik ez

Inork ez daki Arrasaten zenbat txakur egon daitezkeen, ez behintzat Udaletxean eta albaitarien artean. Albaitari batek zioenez, amorruaren aurkako txertoa derrigorrez egin behar zenean, jakin zitekeen kopurua; orain txertoa borondatezkoa da eta ez dago jakiterik. Albaitari honen ustez, Udalari dagokio kontrola eramatea, baina 15 pertsonako txakur bat kalkulatzen zuen.

FAGOR
TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA
GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

GORKA
ILEAPAINDEGIA
Otsailak 6 LARUNBATA
Arrasaten irekiko dugu ileapaindegi berria!
Ferrerias, 35
Tfnoa: 76 04 18
ARRASATE

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65




Ikastolako eraikuntzetan eta kirol instalakuntzetan birmoldaketak egingo dira.

# S.F.X. Ikastolako guraso gehienak gustora Ikastolarekin

San Frantzisko Xabier Ikastolako ikasleen gurasoek, Ikastolako zerbitzuei buruz iritzi ona dute; hori adierazten dute urriaren azkenetik azaroaren 15era Ikastolako ikastetxe guztietan egindako inkestek. Ikastolak 1128 ikasle ditu eta inkesta gurasoen %57'6ak erantzun du, galderak erantzuteaz gain, 210 gurasok ohar eta proposamenak egin dituztela aipagarria bada ere.

Jasotako erantzunen arabera, gurasoen %80a Ikastolako ikasmaila, baloreen aldarrikapena, euskara maila, irakaslego-tutoretzen prestaketaz eta gelako dagoen ikasle kopuruaz gustora egongo litzateke. Era berean, %45ak uste du kirol instalazioak hobetu egin behar direla eta %28ak eraikuntzak. Gurasoen %10tik %20arentzat, kostua, materiala, ezartzen den disziplinak, denbora librerako aukerak, ikasteko teknika eta zerbitzu psikopedagogiko ez dira nahiko.

Ikastolak ase behar dituen beharrei erantzunez, hemendik denbora gutxira ikastetxeetako kirol instalazioak konpondu egingo dira, Ferialekua aprobetxatuz eraikuntzak birmoldatu, 93-94 ikasturterako egun osorako logopeda zerbitzua jarri eta edozein ikasleri, ikastolara 8.30etan joateko aukera emango zaio, horrela ordutegia luzatuz.

## Lagun Aro-IMA akordioa

Lagun Arok, errepidez egiten diren bidaietan laguntza zerbitzuak eskaintzen dituen IMA enpresa frantziarrarekin akordioa sinatu du. Era berean, Lagun Aro taldeko kooperatibisten iazko absentismoari buruzko datuak kaleratu dira, %4,65a: 0,6a istripuak, 0,4 amatasunak eta 3,5a gaixotasunak eraginda.

## Fagor Arrasatek Enpresa Agiria lortu

Fagor Arrasate enpresak, ISO 9000 arau europearren araberako, Enpresa Agiria lortu du. Enpresa Agiri honen bidez, Fagor Arrasateko lanprosezua eta produktuen goimailako kalitatea errekonozitzen dira.

## Udal-etxebizitzei alokairua jarri

Elkano kalean eta Ferixalekuan dauden 6 udal-etxebizitzei alokairua jarriko die Udalak, orain arte ez baitzuten ezer ordaintzen. Elkanokoek 35.000 PTA ordaindu beharko dute eta Ferixalekuko bizilagunek 42.000.

EsLu
ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

Onduline TXOMIN HERIZ
URALITA
eraikuntzarako materialak
Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

ARRASATEKO UDALA
Honako lanpostu hauek bete nahi dira:
• AUKEA Kirol Patronatuko Gerentea
• Zerbitzuetako ikuskatzailea
• Informatika Monitorea
Oinarriak Udaletxean jaso daitezke. Izenak emateko epea otsailaren 15ean amaituko da.
Arrasaten, 1993ko urtarrilaren 22an



Ingelesa ikasteko modu polit bat jarri dute martxan AHIZKE-CIMen. Pasa den asteazkenean, ETC antzerki taldeak umeentzako "Fable" eta helduentzako "Just visiting" ingelesezko obrak eskaini zituzten. Klase teorikoez gain, praktikatzen ere ikasten dute ikasleek.



Alikanteko postal hau Pedro Zumelaga arrasatearrak bidali digu. Guardamar del Segura herrian 500 gipuzkoarrek, horietatik 14 arrasatearrak, neguko oporrak pasatzen dituzte. "Nahiko janari eta edari dugu. Gelak ere oso politak dira eta denok ondo ezagutzeko joku eta dantzak antolatzen dituzte" idazten du Pedrok postal honen atzean. Ondo pasa eta ondo aprobetxatu oporrak!



**San Andreseko herri eskolatik talde honen bisita izan genuen pasa den ostiralean. Herri komunikabideen gaia klasean aztertu ondoren, ARRASATE PRESSi buruzko galdera piloa ekarri zituzten prestatuta. Ondoren telebistaren "magia" ere ezagutu zuten.**

UGARTE
Industri hornidurak
*Arrasate pasealekua*
*Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96*
*Telefax: 793412*

Monte taberna
Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

CE ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak
Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



LASO ARREGI

**Marino Lejarreta pasa den asteburuan Arrasate aldean izan genuen. Bere lagun Pako Azkonaga bisitatu eta bide batez Bar Buenon alfatzen. Txirrindularien mundua utzi duela eta eginiko omenaldien artean, Arrasatera etortzeko tartetxoa bilatu du Marinok, berriz ere.**

Italiako Trentino herrialdeko zenbait erakunde publiko Arrasateko kooperatibak ezagutzen izan ziren pasa den urrian. Handik hilabete batzutara argazkian duzuen aldizkaria bidali zuten. Bertan, Arrasaten egondako bisitarien iritziak jasotzen dira. Inpresio ona jaso zutenaren froga.




## IZEN PROPIOAK

● **Juan Jose Uriarte "Bermi"**, *Diara* diseinu enpresako diseinatzailea eta Udaleko EAJko zinegotziak aurkeztutako kartela izan da haratuzteetako kartelen lehiaketako irabazlea.

● **Anttoni Landaluze**, 27 urteko arrasatearrak Lenguaiaren Pedagogian doktoragoa egiteko beka lortu du. IVAPek ematen dituen hiru beketatik bat lortu du Anttonik.

● **Jose Mari Velez de Mendizabal**, 44 urte, gaitz izenen proiektuko jarripena egiteko zuzendaria izango da. Gogoratu Arrasate Zientzia Elkarteko, Jose Angel Barrutiabengoa izango dela gaitz izenen proiektuaren egilea.

MA ARENAZA
Altzariak
Diseinua
Apainketa
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

aitzgorri
LARRU eta LARRUKIAK
LARRUZKO PRAKAK 15.000 PTAtik AURRERA!!!
Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE

SAMEGO GARBIKETAK
Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

# NEGUKO HAMABOSTALDIA

**ADI! NEGUKO HAMABOSTALDIA LUZATU EGIN DUGU!**

Kanpaina honek izan duen harrera ona dela eta, aprobetxa itzazu ARRASATE KIROLAKek eskaintzen dizkizun aukera paregabeak. Neguko eskaintza honen azken egunak dituzu, eta gogoratu:

Arrasateko Kontzeziño 8an,

KIROL BAKOITZARENTZAT ERANTZUN BAT.



**ARRASATE KIROLAK**

Kontzezino Kalea 8 · Tel 794612

ARRASATE MONDRAGON

# Neguko Hamabostaldia

*Elisabeth*

**APROBETXATU! LUZATU EGIN DUGU GURE ESKAINTZA!!**

Araba Etorbidea, 18 Tfnoa: 77 14 86 ARRASATE

# ZALDIBARREN
## Futbito Txapelketa



# Bigarren fasea? kalkuluak egiteko garaia

**Lau partidu besterik ez dira geratzen Zaldibarko Futbito Txapelketako lehen fasea bukatzeko, eta dagoeneko gauzak nahiko argi daude zenbait talderentzat. Hasiera hasieratik serio jokatuz, sailkapenetako lehen postuak betetzen ari diren taldeek aukera ugari dituzte hurrengo fasea jokatu ahal izateko; katxondeo hutsez hartu dutenek, berriz, aspaldi esan zioten agur bigarren fasera iristeko aukerei. Ia sailkatuta daudena eta dagoeneko zer eginik ez dutenez gain, lehen fasea bukatu arte, galdera ikurraren kamiseta jantziko duen talde ugari dago: sailkatuko ote gara?**

NUEVO
taberna
Bañez Doktorea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE

DEBA
GARAIA
MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR
Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tlfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

SEGURASKI BAIETZ !

## a taldea

| a taldea | PARTIDUAK Jokat. | Irab. | Berd. | Gald | GOLAK Alde | Aurk. | PUNT. Gutz. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ARGI IBILI | 13 | 11 | 1 | 1 | 85 | 27 | **23** |
| ZULOAK | 13 | 11 | 1 | 1 | 53 | 26 | **23** |
| LOS HEREDIA | 13 | 8 | 2 | 3 | 59 | 23 | **18** |
| ARRASATE KIROLAK | 13 | 8 | 2 | 3 | 47 | 35 | **18** |
| URMAY B. K. | 13 | 7 | 3 | 3 | 44 | 26 | **17** |
| AIZPUN BILA | 13 | 8 | 1 | 4 | 42 | 34 | **17** |
| KAIXO LENIZ | 13 | 8 | 1 | 4 | 57 | 57 | **17** |
| BETRAYER | 13 | 6 | 4 | 3 | 42 | 30 | **16** |
| DANOK LAGUN | 13 | 6 | 3 | 4 | 37 | 28 | **15** |
| ITT | 13 | 7 | 0 | 6 | 63 | 33 | **14** |
| SIBILIUS ROVER | 13 | 5 | 3 | 5 | 33 | 30 | **13** |
| BUKANAK | 13 | 5 | 3 | 5 | 37 | 37 | **13** |
| DRAFT | 13 | 4 | 0 | 9 | 44 | 64 | **8** |
| WHISKERIA LINDE | 13 | 4 | 0 | 9 | 40 | 57 | **8** |
| DRINK TEAM | 13 | 2 | 3 | 8 | 18 | 50 | **7** |
| RESAKAS 13 | 13 | 1 | 1 | 11 | 22 | 64 | **3** |
| GARIBAI-5 | 13 | 1 | 0 | 12 | 19 | 61 | **2** |
| AMOZKIBAR II | 13 | 1 | 0 | 12 | 26 | 89 | **2** |
| GUZTIRA | 234 | 103 | 28 | 103 | 771 | 771 | 234 |

## b taldea

| b taldea | PARTIDUAK Jokat. | Irab. | Berd. | Gald | GOLAK Alde | Aurk. | PUNT. Gutz. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| MIKELOS | 13 | 11 | 1 | 1 | 47 | 17 | **23** |
| ZIZTI- ZAZTA | 13 | 10 | 2 | 1 | 52 | 19 | **22** |
| BIZKORRAK | 13 | 9 | 1 | 3 | 30 | 18 | **19** |
| ZULUS | 13 | 9 | 1 | 3 | 58 | 36 | **19** |
| JODO FLORO | 13 | 8 | 3 | 2 | 39 | 27 | **19** |
| DIEGO ANTONIO | 13 | 7 | 2 | 4 | 50 | 31 | **16** |
| PUBLICOOP | 13 | 7 | 2 | 4 | 29 | 36 | **16** |
| MOTZ | 13 | 7 | 2 | 4 | 55 | 59 | **16** |
| KAKAJAURI | 13 | 5 | 3 | 5 | 34 | 40 | **13** |
| TRONKOTEAK | 13 | 5 | 2 | 6 | 43 | 44 | **12** |
| LA BANDA | 13 | 5 | 2 | 6 | 32 | 31 | **12** |
| GATZBAKUAK | 13 | 4 | 4 | 5 | 25 | 38 | **12** |
| ANBOTOSTE K.T. | 13 | 4 | 1 | 8 | 32 | 42 | **9** |
| LAUTHERBRUNNEN | 13 | 3 | 1 | 9 | 20 | 48 | **7** |
| BAYERN PROMESAS | 13 | 2 | 2 | 9 | 20 | 56 | **6** |
| ATERPE KAFETEGIA | 13 | 2 | 1 | 10 | 21 | 40 | **5** |
| ~~FOSFOROS~~ | — | — | — | — | — | — | — |
| ~~KAJOI TABERNA~~ | — | — | — | — | — | — | — |
| GUZTIRA | 234 | 102 | 30 | 102 | 626 | 626 | 234 |

## c taldea

| c taldea | PARTIDUAK Jokat. | Irab. | Berd. | Gald | GOLAK Alde | Aurk. | PUNT. Gutz. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| TRIKITI | 13 | 11 | 2 | 0 | 73 | 17 | **24** |
| ADELAIDA-HAIZEA | 13 | 9 | 2 | 2 | 70 | 20 | **20** |
| NOSKI | 13 | 10 | 0 | 3 | 70 | 29 | **20** |
| LASO ARREGI | 13 | 7 | 3 | 3 | 56 | 33 | **17** |
| ARRASATE KRIST. | 13 | 8 | 1 | 4 | 49 | 31 | **17** |
| TXOKO TABERNA | 13 | 8 | 1 | 4 | 37 | 33 | **17** |
| GURE LEKU | 13 | 7 | 2 | 4 | 59 | 37 | **16** |
| NUEVO TABERNA | 13 | 7 | 2 | 4 | 56 | 45 | **16** |
| ADOBE F.C. | 13 | 7 | 0 | 6 | 44 | 40 | **14** |
| NAVARROS | 13 | 6 | 1 | 6 | 44 | 44 | **13** |
| ALPARGATA TURBO | 13 | 5 | 2 | 6 | 43 | 46 | **12** |
| AUF DEM KOFFER | 13 | 5 | 2 | 6 | 28 | 34 | **12** |
| GANBELAS | 13 | 5 | 2 | 6 | 31 | 39 | **12** |
| KRISKIBALDA | 13 | 2 | 5 | 6 | 30 | 46 | **9** |
| BALINDA | 13 | 2 | 1 | 10 | 23 | 72 | **5** |
| ATXANTA KE TE... | 13 | 2 | 0 | 11 | 23 | 72 | **4** |
| ALLA KUIDAUS | 13 | 1 | 2 | 10 | 21 | 78 | **4** |
| SEGUROS ORBITA | 13 | 1 | 0 | 12 | 28 | 79 | **2** |
| GUZTIRA | 234 | 103 | 28 | 103 | 785 | 785 | 234 |

## d taldea

| d taldea | PARTIDUAK Jokat. | Irab. | Berd. | Gald | GOLAK Alde | Aurk. | PUNT. Gutz. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SUM. IND. UGARTE | 13 | 11 | 2 | 0 | 84 | 21 | **24** |
| LEINTZ GARAGAR. | 13 | 9 | 3 | 1 | 50 | 21 | **21** |
| POTROAK LORATEGI | 13 | 8 | 4 | 1 | 49 | 34 | **20** |
| PEPELUS | 13 | 7 | 4 | 2 | 52 | 31 | **18** |
| LOS DIMY | 13 | 6 | 5 | 2 | 67 | 33 | **17** |
| ZOTZ | 13 | 8 | 1 | 4 | 41 | 46 | **17** |
| NOTXINGAN FLOREST | 13 | 6 | 4 | 3 | 53 | 44 | **16** |
| MONTERREY TAB. | 13 | 8 | 0 | 5 | 64 | 34 | **16** |
| KOXKAS | 13 | 6 | 4 | 3 | 41 | 36 | **16** |
| FOTO IMAGEN | 13 | 6 | 3 | 4 | 55 | 35 | **15** |
| ARTZANKOS UDALAITZ | 13 | 4 | 3 | 6 | 51 | 48 | **11** |
| SOLANO 7 MARES | 13 | 5 | 0 | 8 | 50 | 47 | **10** |
| SOKOAKOAK | 13 | 4 | 1 | 8 | 48 | 61 | **9** |
| UGLYS | 13 | 4 | 0 | 9 | 29 | 45 | **8** |
| OLEEE! | 13 | 3 | 1 | 9 | 34 | 63 | **7** |
| EZKIÑAKO HONTZAK | 13 | 2 | 0 | 11 | 29 | 80 | **4** |
| BAYERN DE LEINTZ | 13 | 1 | 1 | 11 | 26 | 79 | **3** |
| ILUNA TABERNA | 13 | 1 | 0 | 12 | 19 | 84 | **2** |
| GUZTIRA | 234 | 99 | 36 | 99 | 842 | 842 | 234 |




IRATI TABERNA

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

LIZARRA
taberna

Leintzibar kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35



**Epa mutil, seko utzi hau eh! buelta eman eta baloia kentzeko gaitasun barik. Aurrelariak trabarik egiten ez badio, nekez kenduko dio baloia beste taldekideren batek. Dagoeneko gol erdi eginda, beste erdia metro batzuk aurrerago egin behar.**

## EMAITZAK

### A TALDEA

| | |
|---|---|
| Drink Team 2 | Whiskeria Linde 1 |
| Zuloak 2 | Argi Ibili 5 |
| Azipun Bila 0 | Danok Lagun 4 |
| Betrayer 4 | Los Heredia 1 |
| Resakas 4 | Kaixo Leniz 5 |
| Garibai-5 0 | Urmay Burger King 2 |
| Bukanak 0 | Sibiliusa Rover 2 |
| Arrasate Kirolak 5 | Draft 4 |
| ITT 11 | Amozkibar II 0 |

### B TALDEA

| | |
|---|---|
| Mikelos 1 | Motz 5 |
| Bayern Promesas 0 | Bizkorrak 5 |
| Aterpe Kafetegia 2 | Diego Antonio 4 |
| Zukus 4 | Tronkoteak 4 |
| Publicoop 3 | Lautherbrunnen 2 |
| Jodo Floro 3 | Anbotoste K. T. 0 |
| La Banda 2 | Gatzbakuak 0 |

### C TALDEA

| | |
|---|---|
| Atxanta ke te... 1 | Txoko taberna 2 |
| Alpargata turbo 6 | Balinda 3 |
| Navarros 1 | Nuevo Taberna 4 |
| Ganbelas 1 | Trikiti 8 |
| Gure Leku 6 | Kriskibalda 1 |
| Adelaida - Haizea 9 | Alla Kuidaus 1 |
| Laso Arregi 4 | Noski 3 |
| Adobe F. C. 2 | Seguros Orbita 1 |
| Auf Dem Koffer 0 | Arrasate Krist. 1 |

### D TALDEA

| | |
|---|---|
| Monterrey tab.12 | Iluna taberna 0 |
| Potroak Lorategi 4 | Foto imagen 2 |
| Oleee! 0 | Los Dimy12 |
| Ezkiñako Hontzak 2 | Bayern de Leniz 4 |
| Sokoakoak 3 | Pepelus 5 |
| Zotz 3 | Koxkas 2 |
| Uglys 2 | Artzankos Udalaitz 8 |
| Leintz Garagar. 3 | Notxingan Flo. 3 |
| Solano 7 mares 2 | Sum. Ugarte 3 |

## BELARRIRA

### ◆ Zigorrak

Gauzak asko aldatzen dira aste batetik bestera. Antolatzaileek joan den astean talde guztiak zoriondu zituzten; aste honetan, berriz, beraien arteko partiduan sortutako iskanbilarengatik, Danok Lagun eta Aizpun Bila taldeetako bi jokalariri zigorra ezarri behar: bi partidu jokatu barik.

### ◆ Erregua

Aurreko erabakia disziplina batzordeak hartutakoa zen eta hurrengo erregua ere, toki beretik dator. "Araudiaren arabera, baloi bat zelaitik ateratzen denean, atera den aldean jokatzen ari den taldearen erreserbek bila joateko obligazio daukate. Betebehar hori bete ezean, disziplina batzordekook ikusiko dugu zein erabaki hartu".

### ◆ Zorionak

Berri zatarrak alde batera, zorionak Artzankos Udalaitz eta Urmay B. K. taldeei, aste honetako afariak eurentzat izan dira eta.


Trikipublik

Kanpatorpea, 2
Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

• Publizitate kanpainak •
• Diseinu grafikoa •
• Artikulu publizitarioa •
• Zuzeneko publizitatea •
• Bideo produkzioa •

## ASTEBURU HONETAN

### Larunbata 30

**Zaldibar**
08.45 Bizkorrak / Tronkoteak
10.00 Foto Imagen / Leniz Garagardotegia
11.00 Ganbelas / Gure Leku
13.00 Mikelos / Zizti-Zazta
14.00 Atxanta ke te... / Adelaida Haizea
15.00 Alla Kuidaus / Txoko taberna
16.00 Noski / Auf Dem Koffer
17.00 Artzankos Udalaitz / Solano 7 mares
18.00 Diego Antonio / Gatzbakuak
19.00 Kakajauri / Jodo Floro

**Iturripe A**
13.00 Betrayer / Resakas
14.00 Aterpe Kafetegia / Zulus
15.00 Los Dimy / Pepelus
16.00 Sibilius Rover / ITT
17.00 Lautherbrunnen / La Banda

**Iturripe B**
11.00 Draft / Argi Ibili
12.00 Aizpun Bila / Bukanak
13.00 Bayern Promesas / Publicoop
14.00 Whiskeria Linde / Urmay Burger King
15.00 Monterrey Taberna / Zotz
16.00 Danok Lagun / Kaixo Leniz
17.00 Navarros / Laso Arregi

### Igandea 31

**Zaldibar**
08.45 Drink Team / Garibai-5
10.00 Zuloak / Arrasate Kirolak
11.00 Nuevo taberna / Kriskibalda
12.00 Sokoakoak / Ezkiñako hontzak
13.00 Alpargata Turbo / Adobe

**Iturripe A**
09.45 Bayern de Leniz / Suministros Ugarte
11.00 Seguros Orbita / Balinda
12.00 Oleee! / Uglys

**Iturripe B**
09.45 Iluna taberna / Koxkas
11.00 Trikiti / Arrasate Kristaldegia
12.00 Los Heredia / Amozkibar II

## NON DAGO BALOIA?




**10. astea**

**Non dago baloia?**

• Erantzuna ..............................
..............................
..............................
..............................

• Izena ..............................
..............................
..............................

• Tfnoa ..............................

### HIRUGARREN SARITUA

Nahiz eta argazkirik argitaratu ez (datorren astean ikusi ahal izango duzue) badugu urtarrileko **Non dago baloia?** lehiaketako irabazlearen izena: **AINHOA LASAGA**.

Ainhoak eramango du **Arrasate Kirolak**-en 20.000 PTAko balioagatik erosketak egiteko aukera. Zorterik izan ez duzuenoi ez etsitzeko esan behar, aukera gehiago izango dira eta. Dena dela, ez ahaztu: parte hartu barik ez dago irabazterik, beraz, animatu eta bidali hilabete guztien argazkien erantzuna, otsaileko saria zurea izan daiteke!

Trikiti S. L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56



Jose Mari Ormaechea: industrializazioaren erdia bizi izan duen gizona. JOSEBA

## Jose Mari Ormaechea

# Besteekiko zorra

Beñardo Kortabarria

**Alberto Gorroñogoitia, Jesus Larrañaga eta Luis Usatorrerekin batera, eta Jose Maria Arizmendiarrietaren eraginez, Jose Mari Ormaechea kooperatiben sortzailea da. Jubilatuta dago, baina lana utzi barik; beraz, elkarrizketarako, tartetxo bat egin behar izan zuen bere ajenda estuan.**

### GARAI BATETIK BESTERA

Jose Mari Ormaecheari, berak ere halaxe dio, ez zaio berba egiteko bultzada handirik egin behar. Hizketarako trebetasunaz eta bere memoria onaz baliaturik, ia ez du galderarako astirik ematen "Iturriotz kalean jaio nintzen, gero Arrasateko beste hainbat tokitan bizi izan naiz, azken finean 66 urte bertan. Beharbada txikia nintzeneko oroitzapen gogorrena, lau urte nituela, Herriko Plazan Errepublika iragarri zen eguna izango da. Etxafleru handiak bota zituzten eta izugarrizko beldurra pasatu nuen... baina era berean hunkituta nengoela gogoratzen dut; 1978. urtean, Ikurriña jarri zuten egunean plazan nengoen, toki berean, eta orduan ere, 50 urte beranduago, hunkitu egin nintzen.

Gaztetako oroitzapenen inguruan, gustora gogoratzen ditut herriko kaleetako adokinak, elurrez estalita, ikatza eramanez pasatzen ziren zaldiak".

Errepublika garaitik, gerrara, eta honen ondorioz, Francoren diktadurarako bidea ezagutu zuen Jose Mari "Alcalá Zamora Errepublikako presidentea izan zena Arrasatera etorri zenean, bost urte besterik ez nituen eta, normala denez, ez nuen ezer ulertzen. Gerra hasi zen egunean Logroñon nengoen, Aurrezki kutxak eta Errepublikako Diputazioak antolatutako kolonia batean, beste 83 gazterekin batera. Uztailaren 18an Logroño alde nazionalean geratu zen; Arrasate, berriz, gorrien aldean. Hona etortzeko aukerarik ez nuen izan eta Frantziara eraman ninduten eta abenduaren 3a arte han egon nintzen, baina gurasoek erreklamatu egin ninduten eta hona etorri nintzen".

### LAN-MUNDUAN BARRENA

1939. urtean aprendizen eskola zabaldu eta urte batzuk beranduago, 1943an, Eskola Profesionala egin ze-

nean, Arrasateko hezkuntza-mailak gorakada handia izan zuen Ormaechearen ustez. "Orduan unibertsitatera milatik bat joaten ziren eta guk ere, ez genuen aukera hori izan; beraz, peritaje industriala egin genuen 1947tik-1953ra. Aurrez, 1941etik-1945era Zerrajeran lan egin nuen, ikasten noski. Hamazortzi urte bete nituenean, fundizioan sartu eta tailerreko jefe izendatu ninduten; hamar urtez han ibili nintzen".

Kooperatibetako fundatzaileek Zerrajeran asko ikasi zutela dio Ormaecheak, eskola ona izan zela. Jose Maria Arizmendiarrieta ezagutu, eta kapitala eta langileen arteko diferentziak nolabait murriztu behar zirela pentsatu eta barneratu zuten. "Francoren garaian, eliza, militarrak eta kapitala ziren zerbait egin zezaketeen bakarrak. Gose-garaia zen, baina benetako gosea, jendea gaixotu arteko gosea. Sindikaturik ez zegoen, mugak itxita zeuden, soldatak oso txikiak ziren eta gizartea militarizatuta zegoen. Batzuk izugarrizko diru-piloa egiten ari ziren, nahi zuten bezala bizi izaten; beste batzuk, ordea, apenas ateratzen zuten jateko. Jose Maria Arizmendiarrietaren pentsamendua garatuz, egoerari buelta eman nahi genion, ".



Industriarako eskola onena Zerrajera izan ei zuen. JOSEBA

### KOOPERATIBA GIZONA

Usatorre, Larrañaga, Gorroñogoitia eta Ortubairekin batera, Ulgor ireki zuen, lehen kooperatiba. Montatzailea, Ulgorreko gerentea, Ularcoko presidentea, Euskadiko Kutxako Zuzendari Orokorra, SPRIko presidentea... denetarik egin du Ormaecheak ordutik. Ulgorren bidetik abiatuta, kooperatiba asko sortu dira ondoren, kooperatiben mugimendua garatu eta izugarri hazi da. "Ez dut uste orduko mugimendua eta oraingoa berdinak direnik, ezta ideiak ere, baina ez dute zertan izanik. 1955ean genuen grina eta kooperatibak sortzera bultzatu gintuen egoera erabat aldatu da. Jose Maria Arizmendiarrietaren helburua ez zen kooperatibak gauzatzea, berak gizartea aberastu nahi zuen, kooperatiben bidez edo beste edozein tresnaren bidez. Gaur egun, oinarri kooperatibistekin oso zaila izango litzateke Ulgor bezalako enpresa bat martxan jartzea: orduan, langile batek bost urtetan irabazten zuenarekin lanpostu bat sortarazten zen; orain horretarako 30 langileren soldata behar da, beraz, produkzio prozesuaren barruan lanpostua norberarena izatea ezinezkoa da eta ondorioz, oinarri kooperatibista galdu egiten da. Dena dela, lanpostuak sortzeko badira beste bide batzuk: norberaren enpresa barne-finantziatzeko, instituzioen edo elkartasun aurrezkitik sortutako laguntza aurkitu behar da, atzerriko enpresak erakarri behar dira... eta lanpostuak sortu, nahiz eta kooperatiba ez izan".

**"Gaur egun oso zaila izango litzateke oinarri kooperatibistekin Ulgor bezalako enpresa bat martxan jartzea"**

Nahiz eta gizon kooperatiboa izan, Ormaecheak gertutik ezagutzen du bestelako industria, eta badu zer esanik. "Francoren diktadurak enpresariei eman zien laguntza beraien aurka itzuli da; Franco hil zenetik enpresariak noraezean ibili dira. Sindikatuek aurrera egin dute eta enpresa espainiar ugari itxi da, ederki jarritako enpresak; izan ere, diktaduraren babesak, enpresari izaera galerazi zien askori, ez zuten ez atzerriko konpetentziarik eta ezta sindikaturik ere aurrean. Zailtasunak iritsi zaizkienean ez dute erreakzionatzeko gaitasunik izan, hori da errealitatea".

### ARAZO BERRIEI ARMA ZAHARRAK

Egoera ekonomikoa txarra da Jose Mariren ustez, baina horregatik ez dagoela etsi beharrik. "Irudimena, fedea eta lana eginez, gauzak aurrera atera daitezke, pentsatuz guztiok zorrak dauzkagula gizartearekiko. Inork ez du errurik baina hau maldan behera doa eta eskua sartu beharra dago. Kooperatibek, Lagun Aro eta Euskadiko Kutxaren artean, 650.000 milioi PTA dauzkate, Estatuko Eskola Profesional onena bertan dago, esperientzia handia dugu eta guk enplegua sortu behar dugu, kooperatiboa izan edo ez, gizartearen arazorik handiena enplegueza baita. Baina hori ez da bakarrik kooperatibisten arazoa, edozeinena da".

Kooperatiben etorkizuna oraingo errealitatetik desberdina iragartzen du Ormaecheak. "Kooperatiben etorkizuna ezin daiteke izan orain arte ezagutu denaren berdina. Irudimena jarri behar da eta beste enpresa modelo bat asmatu, egoera ekonomiko berrira egokitu, batez ere kanpora begira. Guztiek ez

dute aldatu beharrik izango, baina gehienek bai".

Sakrifioa, irudimena, argitasuna, gaitasuna, borondatea... eta antzerako hitzak aipatzen zituen Ormaecheak aurrera egiteko, atzerritik datorren konpetentziari aurre egingo dioten baliogarriak baitira. "Hemen pasotismo handia dago. Diktadura bukaeran, traba guztiak hautsi ziren; orain egoera anarkikoa da, inork ez du besteekiko ardurarik bakoitzak bere eskubideak aldarrikatzen ditu baina ardura barik. Kennedyk eta Arizmendiarrietak gauza bera zioten: besteengatik zerbait egin behar dela. Hori onartzen ez bada, ez dago irtenbiderik".

**SPRIko ESPERIENTZIA ETA ETORKIZUNA**

Arizmendiarrietaz pasioz hitz egiten du, "hanka sartu arte", euskaldunaren prototipoa izan ei zen, Ormaecheari eta bere inguruan zebilen jende askori bizitza aldatzea eragin zion gizona, Arrasateko esperientziaren giltza. Besteenganako konpromezu horretan sartzen ei zuen Jose Mari Ormaecheak lana hitza. Predikatzen duena errealitate bihurtuz, bera jubilatuta dago baina lanean oraindik. "Dagoeneko presidentea ez banaiz ere, SPRIn nabil. Sartu nintzenean, gobernuaren dirua erabiliz, enpresen sorkuntzari begira ikastaroak antolatzen zituen SPRIk. Niretzat hori ez zen nahikoa eta antolakuntzan hiru arlo nabaritu nituen: promozio teknologikoa (ikastaroak); industria-fomentoa (lur industriala, kreditu bereziak eta industria-antolaketa); eta promozio industriala (enpresa eta iharduera berriak). Nire ustez, erakundearen izaera aldatu dut. SPRI tresna baliagarria da, baina ezin ditzake Euskal Herriko arazo guztiak konpondu. Industria gaixorik badago, orduan sartu egin


Ormaechearen ustez enpresari euskaldunek jarrera aldatu behar dute. JOSEBA

beharko dira erakunde publikoak industrian; baina ez da ona, industriak bere kontu atera behar du aurrera ere.

SPRIn gustora egon naiz, baina lehendakaritza utzi egin behar izan dut, oso nekagarria da eta. Jende askok nirea Xabier Retegiren dimisioarekin lotu du, eta ez da horrela, aurrez esan nuen noiz utziko nuen, eta oso ondo konpontzen ginenez, ez zitzaidan gustatu Xabier Retegiren dimisioa, baina besterik ez".

Europa, modan dagoen hitza, baztertu ezina elkarrizketa honetan. "Barruan gaude. Europan, duela 200 urte industri-produkzioan etengabe ikertzen dabiltza, hemen ezer ere ez. Gaur egun, 200 urte horietan ezer ez egitea ordaintzen ari gara, konpetitzeko eta ikertzeko gaitasun barik. Enpresari euskaldunek jarrera aldatu behar dute, baina hori egiteko

**"Kennedyk eta Arizmendiarrietan gauza bera zioten: besteengandik zerbait egin behar dela. Hori onartzen ez bada, ez dago irtenbiderik"**

jende gaztea behar da eta ez orain 25 urteko modeloa".

Euskalduna eta arrasatearra izan, bertan bizi eta bere bulegotik herriko zati handi bat ikustearen gertutasunetik hitz egiten du Ormaecheak Arrasateri buruz. "Pena ematen dit Arrasaten, formazio handiko gazte asko egonda, enpresa ekimenik ez sortzeak. Badirudi jende guztia enpresak beste batzuk egin ditzaten zai dagoela. Jaurlaritzak eman ditzakeen laguntzekin, sortu egin beharko lirateke".

Arrasateko esperientziari buruzko liburu bat idatzi du eta beste bat idazten ari da, baina Jose Marik ez du idazletzat bere burua. "Ez naiz idazlea, baina gustatzen zait. Horretarako asko pentsatu eta kontzentratu beharra dago. Orain, SPRI eta kooperatiba taldeari lagundu eta zerbait idatzi, pilotan jokatu eta mendian ibiltzeko asmoa daukat".



Fitz-Roy mendiko horma zuzenak eta harkaitz izugarriak.

# Txus Martin arrasatearrak Fitz-Roy mendia garaitu

**Txus** Martin arrasatearrak eta Iñaki San Vicente durangarrak abenduaren azken egunetan Fitz-Roy mendiaren gailurreraino igotzea lortu zuten. Mendi honek altura aldetik ez du zailtasunik, 3441 metro besterik ez baititu, baina eskalada, teknikoki, munduko zailenetarikoa da. Eskaladaren zailtasunari, eguraldi txarra gaineratu behar zaio, hormak normalean izoztuta egoten dira eta gehienetan, orduko 200 kilometro abiadako haize zakarrak astintzen baititu bazterrak. Txus Martinek eta Iñaki San Vicentek Fitz-Roy mendiarekiko erronka pertsonala zuten 1990. urtetik, gailurrera iristeko 300 metro falta zitzaiela, eguraldi txarraren ondorioz atzera egin behar izan zutenetik.

Fitz-Roy mendia, Argentinako Hegoaldean aurkitzen da, Patagonia Austral deritzon herrialdean eta harkaitz izugarridun mendikatean. Beharbada, Fitz-Roy bera baino entzunagoak izan litezke inguruetan dauden beste mendi batzuk: Cerro Torre, Aguja Poincenot, Aguja Egoer…. "Cerro Torre" mendia da arrasatearra eta durangarraren hurrengo helburua, oso jende gutxik igotako mendia. Txus Martin eta Iñaki San Vicente azaroan abiatu ziren Argentinarantz, baina bueltatzeko egun jakin barik. Besaidekoek diotenez, Txus Martin eta Iñaki San Vicente ez dira bueltatuko dirua gastatu arte, "Ez dute denbora gehiegi egingo, inolako dirulaguntza barik joan zirenez, eta asko jota beste pare bat hilabetetarako dirua izango dute, ez gehiagotarako".

*1990. urtean ahalegindu baina huts egin zuten*

## LABURRAK

### Arrasate Saskibaloi igoera fasera

Azpeitiko Iraurgiri irabazi ondoren, Arrasate Saskibaloi taldea matematikoki sailkatuta dago igoera faserako. Txus Brizuelaren mutilentzat, ezinbestekoa zen azpeitiarren aurkako partidua irabaztea, eta lortu zuten.

### Mugerza memoriala

Elgoibarko Mugerza memorialean hiru arrasatear izan ziren: Jabier Mentxaka 43garren, Enrike Kabiketa 44garren eta Alfonso Luelmo, 53garren. Memorialean parte hartzen zuten hamargarren aldia izan zen.

**PUBLIKOAREN SARIA**

**Aukeratu ezazu Arrasateko kirolaririk onena eta 3 baloien zozketan sartuko zara.**

*Azken astea!*

**Kirolaririk onena:** ........................

........................

Izena ........................

........................

........................

Helbidea ........................

........................

Tfnoa ........................






UXARTE
Kafetegia, gozotegia
Gauez irekita!!
JO TA KE!!
Bañez doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

"PAL"
burdindegia, brikolage eta tresneria
Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

## PENALTIAK

● **Mondra taldeko lehen urteko infantil mailako ekipoak, liga hasi zenetik ez du partidu bakar bat galdu, eta dagoeneko hamasei jokatu ditu. Mondra taldeko presidentearen esanetan mutil koxkor hauek ez dute ez fitxaketa beharrik. Beraz, aurten Mondra egiten ari den kanpainak izango du jarraipenik gero ere.**

● **Jose Mari Larrañagak ez zuen Memorial Mugerzan parte hartu, baina hemendik Elgoibarrera arteko bidea korrika egin zuen. Goizeko 7etan abiatu zen eta hara iritsi zenean, epaile lanak betetzeko, azken itzulia adierazten duen kanpaitxoa eman zioten.**



## Oso maila ona eskolarteko probetan

Eskolarteko probetan makina bat haurrek hartzen dute parte. Horrela joan den larunbatean, Iturripen benjamin mailako 58 atleta bildu ziren, 41 mutil eta 17 neska. Guztien ahalegina aipagarria izan zen, baina badira beti gehiago nabarmentzen direnak, argazkikoak kasu honetan: zutirik, Leire Ayani (S.F.Xabier) eta Odei Uranga (S.F.Xabier); jezarrita, Maite Fuentes (La Merced), Anartz Azkarraga (S.Viator) eta Josu Arroiabe (S.Viator).

◆ ◆ ◆

### Fitz-Royko igoera?

Balorazioa baikorra da. Biek, kondizio estremoetan, zailtasun handiko eskaladan aurrerapausu galanta egin dute. Bestetik, aipagarria da, dirulaguntza barik egin izana.



**ANDONI VILLAR**
**Besaide M. E.ko lehendakaria**

## EMAITZAK

**Saskibaloia**
Bigarren mailako Emakumezkoak, Arrasate - Gasteiz, larunbata, Musakolan 6etan.
Jubenilak: Gizonezkoak, Arrasate A - BKL CAF, larunbata, Musakolan 4etan.
Emakumezkoak, Arrasate - Andraitz, igandea, Musakolan 12etan.

**Hurrengo partiduak**
Bigarren maila: Arrasate - Caja Bilbao, larunbata 6etan Musakolan.
Juniorrak: Arrasate - Amigos Baloncesto, igandea 12etan Musakolan.
Jubenilak: Arrasate B - Itzurun, larunbata 4etan Musakolan.
Kadeteak: Arrasate A - Loiola, larunbata 12etan Musakolan.
Kadeteak, neskak: Arrasate A - Amigos Baloncesto, igandea 12etan San Viatorren.

**Eskubaloia**
Seniorrak: Bidebieta 15 - Arrasate Kirolak 23
Juniorrak: La Salle Legazpia 13 - Arrasate Kirolak 20
Jubenilak: Arrasate Kirolak 13 - Ordizia 11
Kadeteak: Arrasate Kirolak 10 - Bidebieta 13

**Hurrengo partiduak**
Seniorrak: Arrasate Kirolak - Urnieta, larunbata 6etan Iturripen.
Juniorrak: Arrasate Kirolak - Ordizia, larunbata 4.30etan Iturripen.

**Futbola**
Hirugarren maila: Erandio 1 - Mondra 1
Emakumezkoak: Mondra 2 - Alde Zaharra 2
Jubenilak: Lehen maila, San Andres 1 - San Viator 1
Bigarren maila, Arrasate 5 - Zumaiako 0
Kadeteak: Arrasate 1 - Elgoibar 0
Haurrak: Ordizia 1 - Arrasate 5

**Hurrengo partiduak**
3. maila: Mondra - Getxo, Atxabalpen igandean 4.15etan.
Preferentea: San Andres - San Viator, Atxabalpen larunbatean 3.45etan.
Jubenilak: San Andres - Lakua 03, Atxabalpen igandean 11.30etan.
Kadeteak: Arrasate - Almen, Atxabalpen igandean 9.30etan.
Haurrak: Arrasate - Almen, Atxabalpen larunbatean 11etan.

**Rugbya**
Seniorrak: Arrasate 5 - Bilbo 36
Kadeteak: Atletico San Sebastian 11 - Arrasate Kirolak 10

**Hurrengo partiduak**
Arrasate - Atletico San Sebastian, Garagartzan larunbatean arratsaldeko 4etan.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65




SALABERRI
HARATEGIA-URDAITEGIA



Azoka Plaza, 22.postua
Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE

# Kotxea bai, baina...

**Garraiobideei** alternatiba desberdinak bilatu nahi badiegu, ez da nahikoa neurri tekniko batzuk aplikatzea, beste arlo hauek ere bultzatzea eskatuko luke:

a) Garraiobide ereduak, bultzatu nahi dugun gizarte-ekologiko ereduarekin bat etorri behar du:

• bidaiatzeko beharra gutxitzen duen eredua.

• buruonesle eta deszentralizatua, hots, unitate txiki eta integratuak dituen eredu emankorra.

• lana askoz ere kreatiboagoa eta errekurtso energetiko berrerabilgarria (haize-energia, eguzkikoa...) bultzatzen dituen eredua.

• garraiobideen kontsumo energetiko, ingurugiro inpakto eta azpiegituraren behar baxuak eskatzen dituena.

b) Garraiobideen behar horren jeitsierarekin batera, azpiegiturarena ere etorriko da, ingurugiroarekiko errespetagarriagoak diren beste arlo batzuetan erabiltzeko errekurtsoak ekarriz.

c) Aurreko neurrien ildo beretik dauden beste hauek:

• gaur egungo eredu metropolitanoa indartzen duten makroazpiegituren eraiketa geldiarazi:

- garraio kolektiboa bultzatuz

- inbertsio txikiagoak eginez, autobusa, trena...

• hiriko erdiguneko aparkaleku berrien eraiketa geldiarazi, oinezkoentzat nahiz garraio-kolektiboentzat zein ez-motorizatuak diren garraiobideen eremuak berreskuratuz.

• oinezko eta bizikletazko ereduak indartu:

- oinezkoentzat: espaloiak gehituz, oinezko-ibilbideak eraikiz, boulevarrak berriztatuz, aisi-guneak berreskuratuz.

- txirrindularientzat: hauentzako ibilbide eta aparkalekuak eraikiz, bizikleta bidezko garraio-kolektiboak bultzatuz.

• garraio pribatua gutxitzeko ekintza ekonomiko, nahiz urbanistiko zein territorialak gauzatu.

• komunikabideen indarra kontutan harturik, aurreko lerroetan azaldutako bidea garatu jendearen kontzientziazioa lortu nahiean.

**Mikel Olabe**



## Ahal duzunean, bizikleta erabili!

**Bizikletak** dituen "botereak" hauek dira:

• Beste garraiobideekin konparatuz merkea da eta ez du gasolinarik erretzen.

• Luzeera txikiko distantzietan motorra du lehiakide gogorrena, baina bizikletak ez du zaratarik ateratzen, ezta kutsatu ere.

• Bizikletan ibiltzea aktibitate oso eta goxoenetarikoa da.

• Kotxeak betetzen duen espazioan hemezortzi bizikleta sar daitezke.

• Distantzia bera betetzeko oinezko batek baino bost aldiz kaloria gutxiago gastatzen ditu ziklistak.

• Hirietan Bizikleta erabiltzeak, garraiobide sektorearen gastuak eta kutsadura atmosferikoa nahiz akustikoa gutxitu eta erabilgarriak izan daitezkeen guneak hedatzea ekarriko luke.

• 16 Km.tako ibilbide bat bizikletaz egiteak 350 kaloria gastatzea dakar, hau da, katilukada bat arroz. Distantzia bera egiteko kotxea erabiliz, 18.600 kaloria gastatzen dira.

• Erdi mailako kotxe bat egiteko erabiltzen diren lehengai nahiz energia kopurua, 100 bizikleta montatzeko aina da.

● **Bizikleta beste garraiobideekin konparatuz merkea da eta ez du gasolinarik erretzen.**

● **Bizikletan ibiltzea aktibitate oso eta goxoenetarikoa da.**

● **Kotxeak betetzen duen espazioan hemezortzi bizikleta sar daitezke.**

## Datu adierazgarriak

**Euskal Herrian**, garraiobide baten ohizko erabileraren inguruan egindako inkesta baten emaitzak:

Araba. Hamar arabarretik seik kotxea behar dute, hiruk autobusa eta batek trena.

Gipuzkoa. Gipuzkoan autobusa beste lurraldeetan baino gehiago erabili ohi da. Hamar gipuzkoarretik bostek kotxea aukeratzen dute, lauk autobusa eta batek trena.

Nafarroa. Araban lortutako emaitzak ematen dira, hau da, hamarretik seik kotxea, hiruk autobusa eta batek trena aukeratzen dute.

Bizkaia. Hamar bizkaitarretik autobusa zein kotxea aukeratzen dituztenak sei dira, eta lau trenean mugitzen direnak.

**Tianjin** (China). %70ak eguneroko desplazamenduetarako bizikleta erabiltzen du.

**Pekin** (China). %48ak erabiltzen du bizikleta egunero.

**Tokio** (Japon). Ohizko bidaietarako bizikleta erabiltzen dutenen portzentaia %25ekoa da.

**Groningen** (Holanda). Pekinen baino gehiago erabiltzen da bizikleta ohizko desplazamenduetarako, %50, hau da, bitik batek.

# URONDO

**elektrizitatea**

- Elektragaiak
- Instalazioak
- Automatismoak
- Argiztapena
- Bobinaketak
- Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE





betaurrekoak

*Tania & Mauro*

# ALAITU EZAZU BEGIRADA

**2.550 Pta.**

*Tania & Mauro* betaurreko berriak MULTIOPTICASen azkena zure begiak modaz jazteko. Beren diseinu erakargarri eta kalitatezkoak. Eta prezioa, harrigarria: 2.550 Pta.

Eta beti J. LARRAÑAGA OPTIKAren garantiarekin. Zatoz eta zerorrek froga ezazu

*J. Larrañaga*
OPTIKA
MULTIOPTICAS

Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradiaran Enparantza. s/n - ORDIZIA

**MULTIOPTICAS**
*Beti Zuri Begira*

# 1704. urteko mondragoetar desertoreak



**Intsumisio** eta desertatze kontuak ez dira gaurkoak bakarrik, eta Arrasateko artxiboetan aurkitutako agiri bat horren lekuko. Diputaziotik etorritako agindu baten ondorioz Alkateak emandako bando bat da, hona hemen testuingurua, labur bada ere:

"Guerra de Sucesión" delakoa oraindik amaitu gabe zegoela, bi gorte zeuden Espainian, Felipe V.arena bata eta Carlos Artxidukearena bestea. 1704. urtean Felipek aurre egin zion Carlosi Estremadurako kanpainan eta bando honi esker badakigu Gipuzkoatik ere soldaduak joan zirela hara. Horietatik zenbaitek desertatu eta ihes egin zuen. Kontu horrek makina bat buruhauste eman behar izan zien Gipuzkoako Batzar Nagusiei eta zigorrak jartzen hasi ziren. Alkatearen bando honen esanetan, hogeitamar egunetan euren tertziora bueltatzen badira barkamena lortuko dute, eta bestela zigorra jasoko. Guraso eta familiartekoei eskatzen zaie errekadua ematea.

Bide batez, ijitoen kontra ('hijitucoriq' esaten da testuan) eta haiek egiten dituzten kalteak ere salatzea eskatzen zaie mondragoetarrei.

Erregue geure Jaunaq aguinquetan dau
bere zedula Real batetiq provinzia onetati
terzioan joan zirean soldadu gustiaq
Estremadurara. Eta andi eta bideetati
escapadu eta igues eguin eben gustiaq; ogeta
amar egun barruan biurtu ditezela eureen
terziora ta conpañietara ta orregas parkatuten
deostela oraingaño igues eguiñagatiq
mererzietan sittuben pena gustiaq. Au adietan da
biursen direanaquin asenteetan euren plazaq.
Eta termino esan dogun barruan joaten
ezpadira, Justiziaq eguin daguiala Dilixenjia
preso harsseco ala igesi dabilsen gustiaq eta
causea sustanziadu ainbat lasterreen aguindu
daguiala arcabuzeasen ta au adicen da
ejecutadu didila apelazino bagarik,
beste recurso bagarik. Ta corriduco dau terminoaq
gaurco eguneti; eta ebitadu din riezgo au
gurasoa edo anaeaq edo aydeaq
ala iguesi dabilsenaq avisadu daguiela euren
obligazionaquin cunplidu daguien ta miseria
ain andian eureen buruaq ecusi estaguien.
De la mesma suerte aguirie da edosein per(son)a,
ecusi badagui Juridizino onetan hijitucoriq,
ala guisoniq nola anrrariq ala umeriq,
abisadu daguiola alcalde Jaunari eta espabere
Justicia eguingo(da)la.

**LIPOESKULTURA eta ZELULOLIPOLISIA**

**Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.**

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

**ARRASATE PRESS**
**HARPIDETZAK**
**77 05 65**

**Elektroinjekzio Zerbitzua** LUCAS

**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



Garagartza, 1959ko apirilaren 5ean.

Garagartzako neska mutiko hauena 1959ko apirilaren 5ean ateratako erretratua dugu. Domeka eguerdia zen, eta Don Juakinen meza entzun eta gero, jolasean ari zirela atera zien Jose Mari Lasagabaster argazkilariak. Horretarako ohitura ei zeukan argazkilariak, igande goizetan joan eta auzoari, auzotarrei argazkiak ateratzen jardutekoa.

Ezkerretik hasita, bizikletarekin, bizikletaren jabea, **Luis Mari Uribetxebarria "Eperra"**, **Jesus Mari Aranbarri**, **Anparo Iria**, **Antton Zumalde**, **Julito Orobengoa**, **Karmen Orobengoa**, **Mertxe Iribecampos**, **Nati Iria**, **Juan Mari Uribarren**, **Mertxe Uribetxebarria** eta **Kontxita Heriz.**

Luis Mariren bizikleta famatua ei zen kuadrila horretan, besteek ez zeukatenez, harekin ibiltzen ziren eta.

HIRE
Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikuluak
Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

Lore lurrindegia
Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

TXITXINPE
BEREZITASUNAK
Kafea, ardoak, urdaitegia, fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
Tfnoa: 79 67 76
ARRASATE

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

## Etxebizitzak

- **Bilbo ondoan ikasleen pisu baten leku bat behar dut.** Dei egin 76 38 73 tfnora. Eguerdiko 12.30etatik 13.30etara. Felix.

- **Etxebizitza salgia Olarte kalean.** Tfnoa: (947) 27 01 00.

- **70m²ko etxebizitza alokagai Eskoriatzan** oso aproposa bulego edo kontsultarako. Tfnoa: 71 43 28.

- **72 m²ko lokal komertziala guztiz egokitua salgai** Otalora kalean oso prezio interesantean. Tfnoa: 77 05 61.

- **Gela bat alokatzen da bi ohekin.** Tfnoa: 79 07 73.

## Lana

- **Etxeetara joanda OHOko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.

- **Emakume esperientziaduna aste bukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko prest.** Dei egin 8etatik aurrera 77 04 60 tfnora. Margarita.

- **OHO, LH eta kontabilitateko klase partikularrak emango nituzke,** goiz eta arratsalde. Tfnoa: 79 55 28. Itxaso.

- **Klinika laguntzaile titulua duen neska batek umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko** eskaintzen du bere burua. Tfnoa: 79 37 28.

- **Latinezko klase partikularrak behar ditut.** Dei egin 79 34 58 tfnora. Iban.

- **REM 1. kurtsoko lenguaiazko klase partikularrak behar ditut.** Tfnoa: 77 08 43. Nieves.

- **Frantseseko klaseak behr ditut.** Tfnoa: 79 31 25.

- **Esperientziadun neska prest dago umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.

- **Etxetik lan eginez diruz irabazi nahi duzu?** Bidali sobre bat zure helbidearekin etazigilu eta guzti helbide honetara: 161 Postakutxa. 20.500 Aretxabaleta.

## Salerosketak

- **Nikon markako 35-70 mmko objetibo autofokusa salgai.** Bi urte bakarrik ditu. Prezioa: 18.000 PTA. Dei egin ilunkeratan 77 04 44 tfnora. Karmelo.

- **Salgai Taunus Tropicano 10-F berogailu-haizagailua.**
  - **Mepamsa 542 DSE butanozko berogailua.**
  - **PCrako 2MB-ko RAM memoria** (SIMM-ak). Prezioa: 9.000 PTA.
  - **"Ideal 1.034 A" Din A-4 neurriko gilotina.**

  Guzti hauetarako dei egin 77 06 90 tfnora. Kepa.

- **Fagor markako etxeko labe elektrikoa salgai.** Oso egoera onean dago eta prezioa ere oso ona da. Gaineko (enzimera) su elektrikoa oparian doa labearekin. Tfnoa: 79 82 47. Marielen.

- **Vespa 200 TX-a salgai. SS-AH.** Berri-barria. Dei egin eguerdiko 1etatik 2etara. Tfnoa: 79 76 84.

- **Seat Ibiza 1.2 CLX salgai.** SS-AB. 85.000 km. Preziooa: 425.000 PTA.. Dei egin 8etatik aurrera.

- **Dogo argentinar arrazako txakurkumeak salgai prezio interesgarrian.** Dei egin 7etatik 10etara 79 88 53 tfnora.

- **Ibiza GL 1.500, SS-1965-Y salgai.** Tfnoa: 79 66 14.

- **Seat 127 salgai.** SS-I. 80.000 Km. Oso merke. Tfnoa: 79 56 79.

- **Vespa 150 salgai.** SS-V. 95.000 PTA. Tfnoa: 79 71 79. Dei egin 8etatik 10etara. Jabier.

- **Zanussi Z6521 estreinatu gabeko garbigailua salgai.** 5.000 PTA. Dei egin gauez 78 34 16 tfnora.

## Denetarik

- **Propaganda banatzen da Arrasaten,** seriotasunez eta garantia osoz. Tfnoa: 79 37 68.

- **Belarritakoa galdu nuen Igualatorio Mediko eta Kuku denda artean.** Bateron batek topatu badu, dei egin dezala 79 94 14 tfnora.

- **Erretratuak, paisaiak etab. egiten dira oleoz.** Oso ekonomikoak. Informaziorako jo Monterron pareko Uxarte goxodendara edo 79 83 76 tfnora. deitu.

- **Loro baserrian neurri guztietako 10 urteko plataneroak erregalatzen dira.** Joan eta atera egin beharko duzu, atxurra ere badaukagu. Dei egin 79 17 88 tfnora.

# Aste Gazte

### Sexualitate tailerra

• Gazte eta begiraleei zuzenduak, Arrasateko HIES Ekimenak antolatuta. Martxotik aurrera. Iraupena: 20 ordu. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago. Inskripzioak: Arrasateko Pasealekuko lokalean nahiz Gazteentzako Inf. Bulegoan.

### Eski kanpaina

• Diputazioak antolatu duen Astesanturako irteeran interesa duzuenoi, erreserba lehen bait lehen egiteko gomendatzen zaizue. Apirilak 12-18, Pal-en (Andorra), 27.000 PTA. 15-29 urte bitartekoei zuzenduta.

### Santa Ageda eguna

• Aurten AEDko gazte sailekoak Santa Ageda bezperan kantatzera irtetzeko asmotan daude. Horretaz aritzeko, ostiral honetan (29an) arratsaldeko 7etan bilduko dira AEDko lokaletan. Animatzen direnak, bilerara hurbil daitezela.

### Goikobalu abesbatza

• Abesteko zaletasuna duzuenoi ostegunetako entseiuetara, San Frantzisko Xabier Ikastolan (Gazteluondo), hurbiltzera animatzen zaituzte.

### kastaroak

• Izotz Eskalada Ikastaroak, Gavarnien, hastepen eta hobekuntza mailak. Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatuak. Otsailak 6-7 eta 13-14. Inskripzioa: 9.000 PTA.

**"... Baina gaztetasuna amaitzen ari zitzaion eta berarekin bat, itzalen atzetik ibiltzeko gogo edo indarrak."**

**S. PUERTOLAS**
**"QUEDA LA NOCHE"**

arrasateko udaleko gazte-zerbitzua

**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

# ZER NAHIAGO?

## Jose Inazio Inda

### Altuna Garajekoa



- **Trialeko ala errepideko motorra?** Errepidekoa aukeratuko nuke.
- **Markarik onena?** Jamaha.
- **Bizikleta mota bat?** Mendian ibiltzeko, Montain Bike.
- **Umore ona duzu?** Nik uste dut baietz.
- **Jende berria ezagutzea gustatzen zaizu?** Bai, asko gainera.
- **Kaskoa erabiltzea komodoa da?** Komodoa ez dakit, baina praktikoa bai.
- **Motorra, kotxea ala bizikleta?** Bizikleta, noski.
- **Nor eramango zenuke atzean?** Bada, ez dakit, agian neska bat.
- **Zein da bizikletaren parterik inportanteena?** Frenuak, kanbioak eta kuadroa.
- **Zenbateko abiadura har dezake bizikleta batek?** Ez dakit, oso zaila da jakitea.
- **Zenbat balio dezake garestienak?** Puf! asko. Kilo erdi edo.
- **Herririk politena?** Santiago de Compostela.
- **Zer irakurtzen duzu egunkarian?** Normalean kirolak.
- **Zer jendek erosten du bizikleta?** Adin guztietako jendeak, emakume zein gizonezkoek. Gainera gero eta gehiago saltzen dira.
- **Bidaia motorrean egiteko?** Bada, ez dakit, kostaldera edo: Zarautz edo Donostiara.
- **Zer iritzi duzu ekologistez?** Euren alde nago, lan ona ari dira egiten.
- **Etxeko txokorik gustokoena?** Nire logela.

## BERTSOAK

### JUBILATUAK

Jubilatu berria
urtien lenenak,
oraindik ilusioz
gainezka daudenak;
Hain daude gordin eta
hain daude lerdenak;
ote dituzte gero
emanak onenak?
egin asmotan dira
bakoitzak berenak.

Horietako norbait
agurtu nuan da,
jubilatzea, dio,
gaur oso modan da;
Horrela bizitzeko
aukera egon da;
aldago zertan ari
lanari emanda?
gure panorama hau
oraingoz holan da.

Esan beharrik gabe
edozeinek daki,
jubiltzea beti
zarrari dagoki;
ordea zahar ez diran
hainbeste izaki,
deitura ez zaiete
erortzen egoki;
al balitza aldatu,
ez al da hobeki?

**JOXE MANUEL ARRIOLA**

PEUGEOT · TALBOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

BAZAR TOKI ON
ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA
J. Carlos Guerra, 1
Tfnoa: 79 91 64
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Kabia altzariak
Gipuzkoako Etorbidea, 28
ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

## *Haratuzteetarako kartel lehiaketa*

# Aurkeztutako hamaika lanetatik, gaztetxoek eginak dira bost




Artista bakoitza bere obrarekin.

**Aldizkari** honetan kartel irabazlea ezagutzeko aukera izan badugu ere, badira beste artista batzuk aipamen berezia merezi dutenak. Izan ere, hamaika karteletatik bost umeek eginikoak dira: Jaione eta Josune Elkorok, Uzuri Larrañaga eta Ihintz Bengoak, Nerea Alberdik, Zaloa Etxebarriak eta Joana Manzisidorrek eginikoak. Gehienak San Juanetan eta beste jai batzuetan izaten diren kartel lehiaketetara aurkeztu dira eta inoiz ere ez dute inolako saririk lortu, "Nire ustez umeentzako beste lehiaketa bat antolatu behar litzateke eta sari desberdinekin. Horrela ume gehiagek hartuko lukete parte".

10-13 urteko neskatila hauen bost karteletan, gai desberdinak ikus ditzakegu: haratuzteekin lotuta dauden kareta eta disfrazak, dantza, Arrasateko dragoia…

Arrasate Press eta beste komunikabideetatik ezagutu zuten kartel lehiaketa eta berehala erabaki zuten parte hartzea. Kartela bera egitea ez da hain zaila izan gehienentzat, baina beharbada zailena kartelaren gaia aukeratzea izan da. "Nik behintzat denbora asko pasatu dut kartelaren gaia pentsatzen; behin hasi ezkero, erraza izan da". Gaia pentsatzea asko kosta zaienez, horri ematen diote garrantzi gehien, "Koloreak eta marrazkiak ere badu bere garrantzia, baina egia esan, gaia ondo aukeratzea da inportanteena". Dena dela, haratuzteetako kartela egitea ez zaie hain zaila iruditu, gai polita dela esan digute.

**● "Lehen ume gehiago aurkezten ziren lehiaketetara, beharbada sariak banatzen zirelako"**

Kartelak egiteko laguntza txiki bat ere izan dute, Monterrongo pintura irakasleak, koloreak aukeratzen, marrazkia egiten edo letrak egiten lagundu die. Bi kartel binaka egindakoak direnez, lana banatu egin dute, "Ez da zaila izan, batek koloreak nahasten zituen bitartean, besteak marrazkia egiten zuen eta horrela."

Kartel irabazlea ikusi duten ere galdetu diegu eta gehienak ezagutzen dute jadanik, "Niri asko gustatu zait, egutegiaren ideia oso ona da eta dragoia ere polita da, Arrasatekoa".

Aurrerantzean izango diren lehiaketetara aurkezteko asmorik baduten galdetu eta erantzun bakarra entzun dugu: Bai. Hala ere zerbait gehiago gehitu diote erantzunari: "Ea sariren bat jartzen duten umeentzat, ilusio handiagoz aurkeztuko ginateke".

PAZI-OLA S.A.
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA
Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

## MITOLOGIA

### SAMARTINTXIKI (II)

Gizakiek bazuten garaia, baina ez zekiten noiz erein. Halere, hauxe entzun zion behin Samartintxikik basajaun bati esaten: "Orri irtete, arto ereitte; orri erorte, gari ereitte; San Lorentzotan arbi ereitte".

Basajaunek zerrak egiten ere bazekiten. Samartintxikik berriz ez, ez baitzeukan horretarako modelorik. Sekretua jakin nahian, bere morroia bidali zuen herrira, Samartintxikik zerra bat egin zuela esatera. Basajaunak hau entzutean, zera galdetu zion: "Gaztainondoaren orria ikusi al du?", "Ez du ikusi, baina ikusiko du" erantzun zuen orduan morroiak. Samartintxikik gaztainondoaren orri haginduna ikusi eta bere erara landu zuen burdin xafla.

Samartintxikiren errotako ardatza haritz-egurrez egina omen zegoen. Halabaina, denbora gutxian lanean jardun ondoren erre egiten zen. Basajaunaren errotakoak aldiz, luzaro irauten zuen. Lehenagoko iruzur bera erabiliz, bere errota jadanik inongo geldialdirik gabe zebilela zabaldu zuen herrian. "Horrek esan nahi du, haltzaz egindako ardatza jarri diola", azaldu zuen basajaunak. "Jarriko dio", erantzun berriemaleak. Handik aurrera gizaki oro baliatu ahal izan da errotetaz.

**LIHER LARREA**



Agur Irudiari erakusketa Monterrongo erakusgelan ikus daiteke.

# 'Agur Irudiari' erakusketa Monterronen

*Agur Irudiari* erakusketa ikusgai izango da Monterronen otsailaren 7ra arte. *Agur Irudiari* erakusketaren helburua nagusia pintura abtraktoa ulertaraztea da, pintura mota horren inguruan dauden topikoak apurtzeko ahalegin bat. Aipatutako erakusketa, *Ikusten Ikasi* erakusketa zikloaren hirugarren eta azken urratsa da.

*Ikusten Ikasi* ziklo ibiltariak, pintura hobeto ulertu, giltzak eta metodologia eskaini eta artelanak ikusten irakatsi nahi izan du, hiru helburu jakinekin: Artelana desakralizatu, jendea artelanaren mundura hurbilerazi eta giza sentikortasuna sormen lanetara eta hunkipen gaitasunak indartzera bultzatu. Helburu horien lorpenerako lehen urratsak eman asmoz, Ikusten Ikasi ziklo ibiltariaren barruan jarri diren hiru erakusketak *Koadro baten zertzeladak, Kolorearen mundua* eta orain Monterronen dagoen *Agur Irudiari* dira. Pinturaren erritmoa eta koloreari eta kuadro abstraktoei buruzko nozioak jasotzeko, pintura lanez gain, argazkiak, idatzitako iritziak, eta antzerako elementuak erabiltzen dira hiru erakusketetan.

***Zikloaren helburua pintura hobeto ulertaraztea da***

*Agur Irudiari* erakusketa ikusi nahi dutenek otsailaren 7a arte izango dute horretarako aukera, astegunetan egunero arratsaldeko 6etatik 8etara eta asteburuetan, goizez 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8etara.

IZAGIRRE
baratagia
Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiralez
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

Zarraoa
ESTETIKA ZENTRUA
Lurrundegia, opariak, jostailuak
Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

## · ESAERA ZAHARRA ·

*"Ez eskatu daukanari, maite zaituenari baizik"*

## · JEROGLIFIKOA ·




**Zer atera du Natur Zientzietan?**

## · GURUTZEGRAMA ·



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Zaldibar Futbito Txapelketako ekipoa. 8. Sendagile. 9. Arbaso. 10. Azken eta lehen bokalak. 11. Pistan egiten den pilota jokoa. 12. Atzizkia. 13. Zilarra. 14. Kemen. 16. Nahigabe egiten den higidura. 18. Kuluskada. 19. Betzain. 20. Nafarroako ibilgailuetan.

**Bertikalak** 1. Itzali. 2. Deuseztatu. 3. Zurrut egin. 4. Tripoli da bertako hiriburua. 5. Akatsak dituena. 6. (Ald.) Bike. 7. Bukaera. 10. Urruti. 15. Gogait. 17. Kontsonante baten izena.

## · HOROSKOPOA ·

**Aries** Utz itzazu txima horiek luzatzen dituzun belarri zabalak estaltzeko

**Taurus** Gripea zuri jarraika dabilkizu. Hartu neurriak berandu izan baino lehen.

**Gemini** Zuk uste ez arren, egun sargori batetako eulia bezain aspergarria zara.

**Cancer** "Latosa" aurpegia duzun arren, atsegin zatzaizkit.

**Leo** Oraindik larunbateko atxurraren ondorioak jasan beharko dituzu

**Virgo** Irazolaren alde jokatutako diru guztia galdu zenuen. Hurrengoan aldatu jarrera.

**Libra** Gerta itzazu elurretarako oinetakoak.

**Scorpio** Urte honetan lanean izango duzun egoerari kolore bat ematekotan, beltza emango nioke.

**Sagitarius** Ikasketak ez zaizkizu batere ongi joango.

**Capricorn** Lagunek triste somatuko zaituzte. Zergaitik?

**Aquarius** Aurkitu duzun nobioa langile bikaina da. Zorte on!

**Piscis** Ebakuntza gogorra jasan behrko duzu.


**BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

**Mamografia**
**Gune susmagarriak aurkitzea.**
**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**
**Bularreko ekografiak.**
**Bularreko tumoreen zitologia.**

**Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bulareko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.**

**GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**

## · ASUN MENDIZABALEN GOMENDIOA ·



**Asunek 18 urte daramatza Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan puntua eta gantxiloa erakusten, eta horixe gomendatu nahi digu. "Txikittan ikasi neban, aldameneko neska-zaharrakin erdi jolasian, muñekendako eta." Gero etxerako eta prenda handiagoak egiten hasi zen, eta ezkondu eta gero kanporako ere egin izan du lan. Lanbide ere izan duen arren, gustatu egiten zaio, eta gogoz erakusten duela antzematen zaio. "Puntu klasiak zenbat? Bueno..."**

## · KOMIKIA ·




## · PROGRAMAZIOA ·

ATB

**31 Igandea**
8.30 Monterock
9.00 Mondragol

**1 Astelehena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondragol
2.00 Follow me
7.00 Dokumentala
8,8.30, 9 Berriak.
9.30 Mondra Sport.
10 Asteko zinea: Aita Jauna II

**2 Asteartea**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Mondra Sport
2.00 Follow me
7.00 Dokumentala
8,8.30 ,9 Berriak.
9.30 ATB Pub
10 Asteko zinea: Aita Jauna II

**3 Asteazkena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATB Pub
2.00 Follow me
7.00 Dokumentala
8,8.30 ,9 Berriak.
9.30 Tertulixan
10 Asteko zinea: Aita Jauna II

**4 Osteguna**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Tertulixan
2.00 Follow me
7.00 Dokumentala.
8,8.30 ,9 Berriak.
9.30 ATBketan.
10 Asteko zinea: Aita Jauna II

**5 Ostirala**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 ATBketan
2.00 Follow me
7.00 Dokumentala
8,8.30 ,9 Berriak.
9.30 Monterrok.
10 Asteko zinea: Aita Jauna II

## · SOLUZIOAK ·

**GURUTZEGRAMA**
**Horizontalak** 1. Adelaida. 8. Mediku. 9. Asaba. 10. Ua. 11. Tenis. 12. Ri. 13. Ag. 14. Adore. 16. Tik. 18. Ukur. 19. Betzain. 20. Na.
**Bertikal** 1. Amatatu. 2. Desegin. 3. Edan. 4. Libia. 5. Akasdun. 6. Iu. 7. Amaiera. 10. Urrun. 15. Ok. 17. Ka.

**JEROGLIFIKOA**
Bikain.


ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

Erdiko kale. 79 19 37
ILEA
Ferrerias. 79 87 62

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

NAROKI
Urrezko bitxiak
NAROKI
Opariak, Jostailuak, Liburuak, Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47

# iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR



# SUKALDE LILURAGARRIAK!

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g
**ARRASATE**
Tfnoa: 79 00 43

Ipeñarrieta, 5
**URRETXU**
Tfnoa: 72 50 75

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
**ARRASATE**
Tfnoa: 79 99 42